



Kanpaina amaigabea

Astlehenean, hauteskunde emaitzez aparte, garilaren 23rako deialdi berria genuen / 2-10

Kontu Ganberak egindako gomendio gehienak dagoeneko bete ditu Irurtzungo Udalak / 13

Urdiaindarrek Josefina Arregi klinikaren aldeko 4.250 euro jaso dituzte / 12

Joanes Bakaikoa Promesen Buruz Buruko txapelduna final gogor bezain epikoan / 15

Lagun Artea eta Etxarri Aranatz futbol taldeak Preferentetik Erregional mailara jaitsi dira / 16

Bargagain taekwondo klubak Nafarroako talde onenaren saria jaso du eta emaitza bikainak lortu ditu / 18-19

Olaztiko hiru lagunek Poxpol taldea sortu dute; gaur emanen dute lehenengo kontzertua / 22

Sakanaoptika
optikaritzak • enbixerakitzak
(baita ere) gogorak

Presta zaitez udarako!

Inbositia zeharbidea 10 (Aitsasu)
948 563 124 | www.optikasakana.com

GUCCI

Udal hauteskundeak herriz herri

EH Bildu Geroa Bai Plataformak



Hamalau udal berritu dira

Haietako hamar EH Bilduren eskutan izanen dira, hiru independenteen esku eta Geroa Baik bakarra gidatuko du. Ergoienan aldaketa izanen da udalean. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan, udalekoetan bezala, EH Bildu izan da nagusi

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
Igandeko udal eta kontzeju hauteskundeetatik ateratako 14 udalak eta 14 kontzejuak garagarri-laren 17an, larunbatarekin, eratuko dira. Iturmendiko Udala eta Zuhatzuko Kontzejua dira berritu gabe gelditu diren toki erakunde bakarrak, eta bigarren deialdia udazkenean izanen da haietan. Udal hauteskundeetan 15.153 sakandarrek zuten botoa emateko aukera eta eskubide hori 9.307k erabili zuten, %61,42. Abstentzioa %38,58koa izan zen, aurreko deialdian baino 4,27 puntu gehiago. Azken bi deial-

dietan parte hartzea 7,46 puntu jaitsi da. Ibarreko udal guztietako emaitzak kontutan hartuta, EH Bildu izan da boto gehien lortu dituen hautagaitza. Sakan-darren %52,94, 4.702, koalizioa-ren aldeko botoa eman zuen igandean. Duela lau urteko deialdiarekin alderatuta EH Bilduk babesaren %6,63, 334 boto, galdu ditu. Baina boto portzentajea 2,02 puntu hazi da. Estreinakoz 2015ean aurkeztu zenean baino 174 boto gehiago dira igandean lortu zituenak. Guztira 10 alkatetza

eta 79 zinegotzi eskuratu ditu, zinegotzi bat gehiago. Ibarreko bi udaletan aurkeztuta Geroa Baik 2.150 boto esku-ratu ditu, Sakanan emandako botoen %24,21. Aurreko deialdiarekin alderatuta koalizioak %15,62 boto galdu ditu, 398. Boto portzentajea ere 1,55 puntu egin du behera Geroa Baik. Hala ere, koalizioa 2015ean estreinakoz aurkeztu zenean baino 624 boto gehiago dira. Alkatetza bat eta 11 zinegotzi ditu, zinegotzi bat gutxiago. Duela lau urteko udal hauteskundeetan Navarra Sumak 710

Udal hauteskundeetako boto kopurua

ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
EH BILDU	4.702	%52,94	79
GEROA BAI	2.150	%24,21	11
UPN	495	%5,57	5
PP	194	%2,18	1
CONTIGO ZUREKIN	172	%1,94	0
BATZARRAMENDI	149	%1,68	5
PSN-PSOE	79	%0,89	1
ASKOGAIN	71	%0,80	2
BATZALARRE	58	%0,65	5
ORBELA	45	%0,51	5

boto eskuratu zituen Sakanan. Eskuineko koalizioa desegin ondoren, hiru hautagaitza aurkeztu ditu politikako sektore horrek eta haien artean sakan-darren babes gehien lortu due-na UPN izan da: %5,57, 495 boto. PPNk %2,18ko babesa, 172, boto lortu ditu sakandarren artean. Eta, azkenik, koalizioa osatzen zuen Ciudadanosek ez du hau-tagaitzarik aurkeztu udal hauteskundeetan. Beraz, koalizioa osatu zutenen alderdiek 689

boto eskuratu dute ibarrean, aurreko deialdian baino %2,95 eta 21 boto gutxiago. Erregio-nalistak bakarka aurkeztu ziren azken aldian, 2015ean, baino 165 boto gutxiago eskuratu zi-tuzten igandean. Popularrei dagokienez, 227 boto galdu di-tuzte 2015etik. Igandeko emai-tzekin UPNk bost zinegotzi lortu ditu eta PPNk bakarra; 2019an baino bat gehiago, baina 2015ean baino bi gutxiago (UPNk 6 eta PPNk 2).



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK
Diseinu soileko lehio berriak
Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



Udal bakarrean aurkeztuta Zurekin Nafarroak Sakanako botoen %1,94, 172 boto, eskuratu zituen. Ezkerreko eta ekologistak diren alderdien konfluentziak 2019an bi boto gehiago lortu zituen, %1,14. Orduan 124 Ahal Dugurendako izan ziren eta 50 I-Erendako. Koalizioa zinegotzik gabe gelditu da.


PSN bi udaletan zerrendak aurkeztetik bakarrera pasa da eta horrek toki erakundeetan zortzigarren indarra bilakatu du botoen %0,89 eskuratuta. Lau urtetan sozialistek botoen %77,23, 268, galdu dituzte. 1983ko udal hauteskundeetan 2.015 boto eskuratu zituztenetik sozialistek etengabe egin dute behera eta gaur egun ibarrean zinegotzi bakarra dute, orain arte bi zituzten.

Hautagaitza independenteei dagokienez, hiru udalen ardura haien esku gelditu da. Irañetan %24,63, 17 boto, igo zen parte hartzea. Arruazuko hautagaitzak %7,41 boto gehiago, 4, eskuratu ditu. Ergoienan, berriz, bi hautetsi elkarte aurkeztu ziren eta orain arte oposizioan zenak, Batzarramendik, botoen %73,26, 63 gehiago, izan eta alkatetza izatera pasa da.

Generoa

Iturmendiko Udalean udazkenean gertatuko denaren zain, 2023-2027 legegintzaldia hasieran alkate zortzi gizonezko (%64,28) eta bost emakumezko (%35,71) izanen dira (Irañetan garagartzaroaren

Foru hauteskundeen emaitzak



17an erabakiko dute). Gizonezko alkate berri bakarra Unai Razkin Iriarte da. Hiru emakumezkoak mustuko dute ardura garagartzaroaren 17an: Oihane Uribeetxeberria Garmendia, Maria Soledad Mozo Galarza eta Maria Saez de Albeniz Bregaña. Gai nontzeko udal agintariak errepikatu egiten dute.

Zinegotziei dagokienez, alderdi eta koalizioek udalak berritzeko 27 zerrenda aurkeztu zituzten, guztira 264 hautagai. Haietan gizonezkoak 146 (%55,30) ziren eta emakumezkoak, berriz, 118 (%44,70). Ibarrean 121 daude eta 114 kargu berritze egin ziren igandean. Haietatik 70 (%61,4) gizonezkoak dira 44 emakumezkoak (%38,6). Hau da, hautes-

kunde zerrenden osaerako portzentajea ez da mantendu behin hauteskundeak eginda. Izan ere, hautetsi gisa aukeratutako gizonezkoen portzentajea zerrendetan aurkeztutakoa baino 6,1 puntu altuagoa da. Kopuru berean egin du behera emakumezkoenak.

Duela lau urteko kopuruekin alderatuta (orduan 13 udal berri-tu ziren maiatzean) 0,85 puntu gehiago hazi da gizonezkoen portzentajea, eta kopuru berean egin du behera emakumezkoenak. Berritu diren hamalau udaletatik soilik hirutan daude emakumezko zinegotzi gehiago gizonezko baino: Uharte Arakil (zinegotzien %57,14 emakumezkoak), Arbizu (%55,56) eta Ergoiena (%57,14). Bestetik, zinegotzien artean genero desoreka handien duten lau udalak dira: Urdiain (%85,71 gizonezkoak dira), Olatzagutia (%77,78), Irurtzun (%72,73) eta Bakaiku (%71,43). %60 eta 70 artean bost udal daude: Etxarri Aranatz (%63,64 zinegotzi gizonezko), Altsasu (%61,54), Ziordia (%61,40) Irañeta eta Arruazu (%60). Parekidetasunetik gertuago hiru udal daude: Lakuntza (%55,56 zinegotzi gizonezko) eta Arakil eta Ziordia (%57,14).

Foru hauteskundeak

Udal hauteskundeen pareko parte hartzea izan zen Nafarroako Parlamentuko hauteskundeetan: %61,94. Udal hauteskundeetan 0,52 puntu txikiagoa izan zen parte hartzea. Abstentzioa %38,06koa izan zen. Nafarroako Parlamentuko hauteskundeetan Sakanan babes handia lortu duena EH Bildu izan da: %39,67 eta 3.743 boto. Udaletakoekin alderatuta, koalizio abertzaleak Parla-

menturako 959 boto gutxiago eskuratu ditu. Litekeena da udal hauteskundeetan bere gogoko hautagaitza opatzen ez duenak edota udaletan eskuineko alderdiei presentzia galgatu nahi duenak Parlamenturako beste hautagaitza bat aukeratzea. Antzeko jokabidea ikusten da beste alderdi batzuen kasuan ere. EH Bilduk aurreko deialdian baino 13 boto gutxiago (%0,35 jaitsiera) lortu ditu, baina bere boto portzentajea 4,09 puntu hobetu du. Bere joera egonkor mantentzen da. Eneka Maiz Ulaia etxarriarra EH Bilduko parlamentaria izanen da.

Geroa Bai da bigarren indarra Sakanan botoen %28,26rekin, 2.667. Udal hauteskundeetan baino 517 boto gehiago lortu baditu ere, 2019ko deialdiarekin alderatuta, oraingoan 974 boto galdu ditu koalizioak (%26,75), eta bere boto portzentajeak 6,23 puntu egin ditu behera. 2015ean baino 68 boto gutxiago eskuratu zituen igandean. Unai Hualde Iglesias altsasuarra Geroa Bai ko parlamentaria izanen da.


Sakandarren artean foru legebiltzarrerako hautagaitzen artean hirugarrena PSN da botoen %11,19 eta 1.056 babes jasota. Udal hauteskundeetan zerrenda bakarra eta 79 boto besterik lortu ez baditu ere, alderdi sozialistak hautesle fidelak dituela agerian gelditu da. Izan ere, aurreko deialdiarekin alderatuta %11,39 eta 108 boto gehiago dira. 1983an 3.029 botorekin goia jo ondoren, hondoa 2015ean jo zuen 812 botorekin. Ordutik goraka ari da.

Ibarreko laugarren indar bilakatu dute UPN jasotako botoen %9,47 eta 894 botoek. PPN, berriz, sakandarren seigarren aukera

izan da foru hauteskundeetan botoen %3,5 eta 330 boto lortuta. Ciudadanosek, aldiz, %0,08 eta 8 boto eskuratu ditu Sakanan. Duela lau urte hiru indarrak Navarra Suma koalizioaren baitan aurkeztu ziren eta 1.414 boto eskuratu zituzten ibarrean. Hirukoaren aurtengo batuketak 1.232 boto ematen ditu, %12,87 eta 182 boto gutxiago. Navarra Suma 2019an sakandarren botoen %13,39 eskuratu zituen. Hiru alderdien emaitzen aurtengo baturak %13,05 ematen du, 0,34 puntuko jaitsiera. Erregionalistek 1999an 2.504 botorekin goia jo zuten, orduz geroztik beherako joera dute ibarrean. Popularrek 2011n 561 boto lortu zituzten Parlamenturako Sakanan eta ordutik beheranzko joera dute, 2015ean 351 boto jaso zituzten.


Zurekin Nafarroa da foru hauteskundeetan gogoko bosgarren aukera. Ekologistak eta ezker-tiarrek batzen dituen koalizioak sakandarren botoen %3,98 eta 376 eskuratu dituzte. Udal hauteskundeetan baino 204 sakandarrek egin dute haien alde, 118,60 puntu gehiago. Aurreko deialdian Ahal Dugu eta I-E banatuta aurkeztu ziren eta botoen %5,68 eta 599 boto eskuratu zituzten. Hau da, 1,7 puntu eta 223 boto galdu dituzten lau urtetan, apika abstentziora edo beste hautagaitzetara joan direnak. Beherako joera du espazio horrek Sakanan. Izan ere, Ahal Duguk 2015ean 1.281 boto eskuratu zituen, eta I-Ek, berriz, 180. Azkenik, Nafarroako Parlamentuan sartzea lortu duen alderdia da Vox. Ultraeskuindarrek ibarreko botoen %1,54 eta 145 boto eskuratu dituzte. Hau da, 101 babes gehiago, %229,55eko hazkundera.

Udal hauteskundeak generoka



Arakil

ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
EH BILDU	336	%75,68	7



1. Oihana Olaberria Jaka



2. Raul Angulo Blanco




3. Irantzu Escudero Jaka



4. Alfonso Nuin Cartujo



5. Julen Llorens Espada



6. Iker Alegre Santander



7. Naiara Mariñelarena Martínez

Olaberriak alkatetzan segituko du

Hautagaitza bakarrak, EH Bilduk, zazpi zinegotziak eskuratu ditu

Bigarren udal hauteskundeak dira hautagaitza bakarra aurkeztu dena, EH Bildu. Eta bigarren legegintzaldia egingen du alkatetzan Oihana Olaberria Jakak. Koalizio subiranistak arakildarren 336 boto (%75,68) jaso ditu, duela lau urte baino 26 gehiago (%8,39). Arakildarren parte hartzea udal hauteskundeetan 3 puntu jaitsi zen, eta, beraz, abstentzioa %40,76koa izan zen. Boto baliogabearen portzentajea %5,13 (24 boto, 14 gutxiago) izan zen. Txuri botatu zuten arakildarrak 108 (%23,08) izan ziren, aurrekoan baino 17 gutxiago (3,35 puntu gutxiago).

Parlamentua

Foru hauteskundeetan ere EH Bildu izan da arakildarren gogoko aukera. 188 boto (%36,72) jaso zituen, aurreko deialdian baino 27 gehiago (%16,77ko igoe-

ra). Koalizio subiranistak udalekoetatik foru hauteskundeetara 148 boto gutxiago jaso ditu (%44,04 gutxiago). Parlamenturako arakildarren bigarren aukera Geroa Bai da 101 (%19,73) botorekin. Duela lau urte baino 34 boto gutxiago dira (%25,19ko jaitsiera).

UPNek Arakilen 100 (%19,53) boto eskuratu ditu, PPK 13 (%2,54) eta Ciudadanosek 4 (%0,78). Guztien artean 117 boto (%22,85). Duela lau urte Navarra Suma koalizioan aurkeztuta 119 (%22,97) eskuratu zituzten. Beraz, 2 (%1,68) botoren galera eta boto portzentajea 0,12 txikiagoa izan dute aurten.

PSN arakildarren laugarren aukera izan zen igandean eta haren aldeko 46 (%9,98) boto izan ziren, 2019an baino 10 gutxiago (%17,86ko jaitsiera). Zurekin Na-


farroak Arakilen 29 (%5,66) boto eskuratu zituen. Azkenik, Voxek 17 (%3,32) boto jaso zituen, 11 gehiago (%183,33ko hazkundea).

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	188
GEROA BAI	101
UPN	100
PSN-PSOE	46
CONTIGO ZUREKIN	29
VOX	17
PP	13
C'S	4
EGUZKILORE	4
VF	3

Irurtzun

ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
EH BILDU	623	%69,69	8
UPN	224	%25,06	3



1. Unai Razkin Iriarte




2. Ana Balda Sanjuan



3. Aitor Larraza Carrera




4. Irati Ollakarizketa Iriarte



5. Joseba Royo García



6. Agurtzane Garijo Peralta



7. Jon Navarro Carrillo



8. Juan José Iriarte Vitoria



1. Luis Enrique De la Calle Moreno



2. Domingo Goñi Sarasola (Independentea)



3. Miguel Ángel Martínez García (Independentea)

Larrazak Razkini pasa dio alkatetza

EH Bilduko lau zinegotzik eta UPNko bik errepikatuko dute

Udal hauteskundeek aurreko legegintzaldiko argazki bera utzi dute Irurtzunen: EH Bilduko zortzi zinegotzi eta UPNko hiru. Alkatetzan Unai Razkin Iriarte izanen da. Koalizio subiranistak 623 (%69,69) boto eskuratu zituen, aurreko deialdian baino 95 gutxiago (%13,23 jaitsiera). EH Bilduren boto ehunekoa lau urtetan 1,75 puntu jaitsi da. Erregionalistek 224 (%25,06) boto jaso zituzten. Navarra Suma gisa aurkeztu ziren 2019an eta orduan baino 26 boto (%10,4ko jaitsiera). UPNren boto portzentajea 0,18 igo da aurreko deialdiarekin alderatuta.

Botorik eman ez duten irurtzundarren kopuruak oraingoan ere gora egin zuen, eta aurreko deialdian baino 104 irurtzundar gehiago gelditu ziren botoa eman gabe. Abstentzioa %42,79koa izan zen, 2015ean baino 8,07 puntu gehiago. Azken bi udal hauteskundeak kontuan izanik, abstentzioa 13,48 puntu egin ditu gora. Baliorik gabeko botoak 34 izan ziren, %3,66. Baliorik gabeko botoak, berriz, 47 izan ziren, %5,06.

Parlamentua

Irurtzundarren artean ere EH Bildu Nafarroako Parlamentua berritzeko lehen indarra da, baina udal hauteskundeetan baino 295 boto gutxiago jasota. Subiranistek guztira 328 (%35,93) herritarren babesak jaso zuten, bi boto gutxiago (%0,61eko jaitsiera). Bigarren aukera den PSNri botoak bikoizten dizkio EH Bilduk. Sozialistek 161 boto (%17,63) eskuratu zituzten, duela lau urte baino bederatzigehiago (%5,92ko igoera).

UPN da irurtzundarren hirugarren aukera 150 (%16,43) botorekin. Erregionalistek udal hauteskundeetan baino 74 boto gutxiago eskuratu dituzte foru hauteskundeetan. Aurreko deialdian Navarra Suma gisa aurkeztu ziren. Koalizio hartan PP zegoen, Irurtzunen igandean 52 (%5,70) boto eskuratu zituen. Bi alderdien igandeko emaitzen batuketak, 202, koalizioan aurkeztu zirenean baino 26 boto gutxiago dira (%11,40ko jaitsiera).

Geroa Bairen alde 137 (%15,01) irurtzundarrek egin dute, 2015ean baino 106 boto gutxiago (%43,62ko jaitsiera). Lau urtetan herritarren bigarren aukera izatetik bigarren

izatera pasa da. Bestetik, Zurekin Nafarroak 33 (%3,61) boto jaso ditu. Aurreko deialdian Ahal Duguk eta I-Ek 51 (%4,96) boto jaso zituzten (36 eta 15). Beraz, koalizioak 18 boto galdu ditu (%35,29). Azkenik, Voxek 17 (%1,86) boto jaso ditu, 13 gehiago (%325eko igoera). Abstentzioa %42,48koa izan zen, udal hauteskundeetan baino 0,31 txikiagoa. Aurreko deialdiarekin alderatuta 8,68 puntu igo da.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	328
PSN-PSOE	161
UPN	150
GEROA BAI	137
PP	52
CONTIGO ZUREKIN	33
VOX	17
EGUZKILORE	11
PUM+J	3
VF	1

Irañeta


ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
ORBELA	45	%56,25	5



1. Jorge Vitoria Gasanz



2. Belen Orkarai Barberena



3. Odei Zabala Bengoetxea



4. Susana Azkona Biurrun



5. Jose Ignacio Arangoa Zia

Alkatea erabakitzeko zain

Orbela hautagaitzako bost kideen artean hitz egiten ari dira

Igandean 86 (%68,25) irintarrek eman zuten Orbelako hautagai-tzaren aldeko botoa. Bakoitzak boto paperean gehienez lau hau-tagairen izenak marka zitzakeen eta hauek izan ziren emaitzak: Jose Ignacio Arangoa Zia 64 boto, Susana Azkona Biurrun 48, Belen Orkarai Barberena 44, Odei Za-bala Bengoetxea 37 eta Jorge Vitoria Gasanz 36. Hala ere, haie-tako bosten artean zein den al-katea garagartzaroaren 17an erabakiko da. Irañetan abstentzioa %31,75ekoa izan zen. Boto balio-gabeak sei izan ziren, (%6,98). Txuriak, berriz, bakarra (%1,16).

Foru hauteskundeak

Nafarroako Parlamentua berri-tzeko hauteskundeetan irintarrek


babes gehien EH Bilduri eman diote, 27 (%31,76) boto, hirugehia-go (%12,5eko hazkundera). UPNk 21 (%24,71) boto jaso ditu eta PPK 4 (%4,71). Navarra Suma koalizioak 2019ko deialdian 35 (%37,23) boto eskuratu zituen Irañetan. Beraz, lau urtetan hamar boto (%28,57ko jaitsiera) izan dute. Eta botoeskuindarraren portzen-tajea 7,81 puntu jaitsi da. Irinta-rren hirugarren aukera Geroa Bai izan da 14 (%16,47) botorekin, zortzi gutxiago (%36,36ko jaitsie-ra). Voxek Irañetan 8 (%9,41) boto eskuratu ditu, bost gehiago (%166,67ko igoera). Zurekin Na-farroak 2 (%2,35) lortu zituen, 2019an Ahal Dugurendako hiru izan ziren (%33,33 jaitsiera. Ga-lera bera izan du PSNk Irañetan.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	188
GEROA BAI	101
UPN	100
PSN-PSOE	46
CONTIGO ZUREKIN	29
VOX	17
PP	13
C'S	4
EGUZKILORE	4
VF	3

Uharte Arakil

ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
EH BILDU	294	%79,03	6
PP	48	%12,90	1



1. Jose Domingo Huarte Baleztena



2. Amagoia Betelu Aldaz (independentea)



3. Arkaitz Los Arcos Bertiz



4. Eneko Martiarena Betelu (independentea)



5. Ane Huarte Razkin



6. Miren Ustarroz Goñi (independentea)



1. Sonia Giménez Alarcón

Uhartek alkate izaten segituko du

Oposizioan popularren ibarreko zinegotzi bakarra izanen da

Kolore bakarrek udala lortzetik gertu ibili zen EH Bildu Uharte Arakilen. 294 (%79,03) herritarrek koalizioaren aldeko botoa eman zuen, duela lau urte baino hamar gehiagok (%3,52ko igoera). Emaitza horiek sei zinegotzi eman dizkiote EH Bilduri. 2015eko deialdian ez zen Navarra Suma-ren hautagaitzarik aurkeztu, baina koalizioaren hausturaren ondoren PPNk Uharte Arakilen hautagaitza aurkeztea erabaki zuen eta 48 (%12,90) herritarrek boto eta zinegotzi bat eman dio-te. Bi hautagaitza egoteak ubertearren parte hartzea handitu du (31 boto emaile gehiago) eta, ondorioz, abstentzioa 5,2 puntu jaitsi da %39,06an geldituz. Ba-liogabeko botoak lau (%1,06) izan ziren, 2019an baino lau gutxiago. Boto txuriak 23 gutxiago izan ziren: 30 (%7,89)

Parlamentua

Foru hauteskundeetan ubertea-rrek boto gehien EH Bilduri eman diote: 150 (%40,54), 2019an baino 25 boto gehiago (%20ko igoera). Udal hauteskundeekin alderatuta 144 boto gutxiago dira (%48,97 gutxiago); boto portzentajea 38,49 puntuko jaitsiera. Herritarren bigarren

aukera gogokoena Geroa Bai izan zen 86 (%23,24) botorekin, duela lau urte baino 13 gutxia-go (%13,13ko jaitsiera).

UPNk Uharte Arakilen 44 boto lortu ditu Parlamenturako eta PPNk, berriz, 23 (%6,22). Popu-larrek udal hauteskundeetan baino 25 boto gutxiago jaso zituzten foru hauteskundeetan, (%52,08ko jaitsiera), portzen-tajea 6,68 puntuko jaitsiera, erdia pasa. Beraz, pentsatzekoa da Nafarroako Parlamenta-UPN bozkatu zuten ubertear batzuk popularren alde eginen zutela udal hauteskundeetan. Navarra Suma 2019an 68 (%19,21) boto lortu zituen, igan-dean baino bat gutxiago (1,47ko jaitsiera).

PSNk ubertearren 38 (%10,27) boto eskuratu ditu, aurreko deial-dian baino sei boto gehiago (%18,75eko hazkundera). Zurekin Nafarroaren aldeko 17 (%4,59) boto izan ziren Uharte Arakilen. 2019An Ahal Duguk eta I-Ek 22 boto (%6,21) lortu zituzten (18 eta 4). Beraz, koalizio ezkertiar eta ekologistak lau urtetan bost boto eta 1,62 puntu galdu ditu. Azkenik, Voxek 3 (%0,81) boto jaso zituen, bi gehiago (%200eko hazkundera).

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	150
GEROA BAI	86
UPN	44
PSN-PSOE	38
PP	23
CONTIGO ZUREKIN	17
VOX	3
VF	1

Arruazu

ALDERDIA	Botoak	Ehuneakoak	Eserlekuak
BATZALARRE	58	%77,33	5



1. Amaia García Mendioroz



2. Gorka Ovejero Ganboa



3. Leire Ganboa De Miguel



4. Mikel Aizpun Andueza



5. Xabier Ganboa De Miguel

Ovejerok alkate segituko du

Batzalarrek eskuratu zituen boto guztiak, UPNk bat bera ere ez

Arbazuarrak sekula ikusi gabekoa izan zuten igandean: udalerako bi hautagaitzaren artean aukeratu beharra; herritarrek osatutako Batzalarre eta UPN. 78 herritarrek (aurreko aldian baino hiru gehiago) hartu zituzten boto paperak eta haietan haien gogoko lau hautagaien izenak markatu zituzten. Babes gehien Gorka Ovejero Ganboak eskuratu zituen, 70 boto, Amaia García Mendiorozek 64 jaso zituen, Mikel Aizpun Anduezak 63, Xabier Ganboa De Miguelek 50 eta Leire Ganboa De Miguelek 44. UPNko hautagaiekin zuten arbazuarren boto bakar bat bera ere eskuratu. Erregionalistek hautagaitza aurkeztu zutenetik ez dira Arruazun egon ezta kartel bat jartzeko. Alderdiaren web orrian udal hauteskundeetan aurkeztutako herri guztietako hauta-

gaitzen berri eman zuen, Arruazukoa izan ezik.

Bestalde, abstentzioa %20,41ekoa izan zen, 2019an baino 3,74 handiagoa. Baliorik gabeko hiru (%3,85) boto izan ziren, aurreko aldian baino bat gehiago. 2019an txuri botatu zuten arbazuarrak 6 (%8) izan baziren, aurten bat berak ere ez du halako botorik eman.

Foru hauteskundeak

Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan arbazuarrak EH Bilduren alde egin zuten. Koalizioak 55 (%71,51) boto eskuratu zituen, 2019an baino 21 boto gehiago (%61,76 igoera). Geroa Baik 14 (%17,95) boto eskuratu zituen, aurreko deialdian baino 15 gutxiago (%51,72ko jaitsiera). PSNren aldeko lau boto (%5,13) izan ziren, 2019an baino bat (%33,33 igoera). Zurekin Nafarroak bi (%2,58) boto

eskuratu zituen Arruazun. Boto bat (%1,28) eskuratu zuen UPNk, 2019an Navarra Sumak 3 eskuratu zuen (%66,66ko jaitsiera). Azkenik, Voxek ere boto bakarra (%1,28) jaso zuen Arruazun.

Nafarroako Parlamenturako


ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	55
GEROA BAI	14
PSN-PSOE	4
CONTIGO ZUREKIN	2
EGUZKILORE	1
UPN	1
VOX	1

Lakuntza


ALDERDIA	Botoak	Ehuneakoak	Eserlekuak
EH BILDU	383	%78,00	9



1. Oihane Uribeetxebarria Garmendia



2. Sergio Goikoetxea Bergera



3. Rita Torrico Muniz




4. Jose Manuel Azpiroz Armendariz



5. Eva Leatxe Itoiz



6. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza



7. Miriam Mendikute Garate



8. Asier Gartzandia Ormaetxea



9. Mikel Aingeru Lopetegui Olasagarre

Razkinek Uribeetxebarriari pasako dio lekukoa

EH Bilduko hautetsiez osatuta egonen da udala

Garagarrilaren 17tik aurrera Lakuntzak bere bigarren emakumezko alkatea izanen du: Oihane Uribeetxebarria Garmendia. EH Bildu izan da aurkeztu den zerrenda bakarra eta, beraz, gehiengo osoa izanen du udalean. Koalizioak 383 (%78) lakuntzarren babesa lortu zuen, duela lau urte baino 87 boto gutxiago (%18,51eko jaitsiera). Abstentzioa Lakuntzan 4,92 puntu igo zen, %40,89an geldituz. Hautetsontzian sartutako 70 (%12,48) boto baliogabeak izan ziren, aurreko aldian baino 25 gehiago. Txuri botatu zuten lakuntzarrek, berriz, 108 (%19,25) izan ziren, aurreko aldian baino 9 gehiago.

Parlamentua

Foru hauteskundeetan lakuntzarren aurreneko aukera EH Bildu izan zen 280 (%49,30) botorekin; 2019an baino 11 boto gehiago dira (%4,09ko hazkundera). Udal hauteskundeekin alderatuta, koalizio subiranistak 103 boto gutxiago jaso zituen Parlamenturako. Lakuntzarren

bigarren aukera Geroa Bai izan zen 151 (%26,58) eskuratuta, aurreko deialdian baino 55 boto gutxiago dira (%26,70ko jaitsiera).

UPNrendako 43 (%7,57) boto izan ziren eta PPren alde 6k (%1,58). Bi alderdiak Navarra Suma koalizioan aurkeztu ziren 2019an. Orduan 58 (9,29) boto eskuratu zituzten, igandean baino 9 gehiago (%15,51eko jaitsiera). Bi alderdiena batuta, botoen portzentajea 0,14 egin dute behera. Bestetik, PSNk 41 (%7,22) babes eskuratu zituen Lakuntzan, aurreko deialdian baino 11 gutxiago (%21,15eko jaitsiera). Zurekin Nafarroaren alde 21 (%3,70) lakuntzarrek egin zuten. Azkenik, Voxek 9 (%1,58) boto jaso zituen Lakuntzan.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	280
GEROA BAI	151
UPN	43
PSN-PSOE	41
CONTIGO ZUREKIN	21
PP	9
VOX	9
EGUZKILORE	5

Arbizu

ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
EH BILDU	353	%77,41	9



1. Francisco Javier Razkin Flores*



2. Ane Lizarraga Begiristain



3. Mateo Berastegi Astiz



4. Amets Flores Gartzandia




5. Mixel Zenarruzabeitia Unamuno



6. Miren Idoia Etxeberria Arrarats



7. Maitane Intxaurreaga Uribarri



8. Mikel Berastegi Unzilla*



9. Ainhoa Izagirre Izagirre

Razkinek segituko du alkate izaten

Bere koalizioko kideekin osatuko da udala

Bigarren legegintzaldia jarraian egingen du Francisco Javier Razkin Floresek, Rubiok. EH Bilduk igandeko udal hauteskundeetan 353 (%77,41) arbi-zuarren botoak jaso zituen, 2019an baino 72 gutxiago (%16,94ko jaitsiera). Arbizun abstentzioa %38,11koa izan zen, lau urtetan 8,05 puntu hazi da. Baliorik gabeko 54 (%10,59) boto zenbatu zituzten, aurreko deialdian baino 16 gehiago. Baliorik gabeko botoak, berriz, 103 (%20,20) izan ziren, 2019an baino lau gutxiago.

Foru hauteskundeak

Nafarroako Parlamenturako arbi-zuarren lehen aukera EH Bildu izan zen 296 (%59,68) bo-torekin, 2019an baino 17 gutxia-go (%5,43 gutxiago). Udal hau-teskundeekin alderatuta, foru hauteskundeetan koalizio subi-ranistak 57 gutxiago eskuratu zituen. Parlamenturako arbi-zuarren bigarren aukera Geroa Bai izan zen. 139 (%28,02) boto eskuratu zituen, duela lau urte

baino 56 boz gutxiago (%28,72ko jaitsiera).

UPNk 25 (%5,04) boto eskura-tu zituen Arbizun. PPK, berriz, 2 (%0,40). 2019an biek eratu zu-ten Navarra Sumak 35 (%6,15) boto bereganatu zituen. Beraz, zortzi boto (%22,85) egin dute behera. Horrek ekarri die boto portzentajea 0,71 galtzea.

PSNk 13 (%2,62) boto lortu zituen, aurreko deialdian baino bat gehiago (%8,33 gehiago). Zurekin Nafarroarendako bost (%1,01) boto izan ziren. Aurreko deialdian Ahal Duguk eta I-Ek zazpi (%1,23) boto (6 eta 1) be-reganatu zituzten. Beraz, bi boto eta 0,22 puntu galdu ditu. Azke-nik, Voxek 4 (%0,81) boto eta Ciudadanosek bakarra (%0,20) lortu zituzten.

Nafarroako Parlamenturako


ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	296
GEROA BAI	139
UPN	25
PSN-PSOE	13
CONTIGO ZUREKIN	5
VOX	4
PP	2
C'S	1

Ergoiena


ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
BATZARRAMENDI	149	%67,42	5
ASKOGAIN	71	%32,13	2




1. Maria Soledad Mozo Galarza



2. Miren Maite Mendinueta Resano




3. Irantzu Mozo Berastegi




4. Iosu Marin Lizarraga



5. Koldo Sansinenea Rodríguez



1. Miren Iosune Andueza Osteriz



2. Eneko Etxarri Amorín

Aldaketa izanen da udalean

Oposizioan zegoen Batzarramendik lortu du alkatetza

Maria Soledad Mozo Galarza unenuarra Ergoienako hiruga-rren emakumezko alkatea izanen da. Aurretik Olatz Berastegi Loiola eta Maria Isabel Senar Berastegi izan ziren. Duela lau urte gertatu zena errepikatu zen igandean atzera ere: alkatetza zuen hautagaitzak hura galdu eta oposizioaren eskura pasa zen. Ergoienan bi hautagaitza independente aurkezten dira eta legegintzaldi honetan Askogai-nen eskuetan izan den aginte makila Batzarramendiren es-kuetara pasako da. Izan ere, Batzarramendik 149 (%67,42) boto eskuratu zituen, 2019an baino 63 boto gehiago (%73,26ko igoera). Ondorioz, bost zinegotzi izanen ditu udalean. Askogainek, berriz, ergoendarren 71 (%32,13) boto jaso zituen, 55 (%43,65) gu-txiago. Emaita horrek udalean bi zinegotzirekin utzi ditu.

Ergoienako udal hauteskun-deetan parte hartzea 11,39 igo

zen, ondorioz, abstentzioa %28,66koa izan zen. Hautetsontzia sartutako botoetatik zortzi (%3,49) baliogabeak izan ziren. Duela lau urte bi besterik ez ziren izan. Bakarra izan zen (%0,44) txuria, aurreko deialdian dozena bat izan ziren.

Foru hauteskundeak

Nafarroako Parlamenturako ergoendarren babes gehien jaso duen hautagaitza EH Bildu izan zen, 111 (%51,87) boto, duela lau urte baino 17 gehiago (%18,09). Geroa Bai izan zen bigarrena 62 (%28,97) boto eskuratuta, 2019an baino 28 gutxiago (%31,11ko jaitsiera). PSNrenda-ko ergoendarren 15 (%7,01) boto izan ziren, aurreko deialdiare-kin alderatuta bat gutxiago (%6,25eko jaitsiera).

UPNk 12 (%5,61) boto berega-natu zituen eta PPK, berriz, 5 (%2,34). Navarra Suma gisa aur-keztu ziren duela lau urte 18

(%8,04) boto lortu zituen. Beraz, eskuindarrek boto bat eta 0,09 puntu gutxiago bereganatu di-tuzte. Ergoienan Zurekin Nafa-rroak 3 (%1,40) boto eskuratu zituen. Duela lau urte Ahal Du-gurendako bi izan ziren (%33,33ko igoera). Azkenik, Voxek boto bat (%0,47) jaso du.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	111
GEROA BAI	62
PSN-PSOE	15
UPN	12
PP	5
CONTIGO ZUREKIN	3
EGUZKILORE	1
VOX	1

Etxarri Aranatz

ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
EH BILDU	871	%77,84	10
UPN	81	%7,24	1
PP	53	%4,74	0




1. Maria Saez De Albeniz Bregaña



2. Lur losu Larraza López




3. Jesus Razkin Ijorra



4. Silvia Sesma Nazabal



5. Arturo Carreño Mundiñano



6. Arkaitz Errazkin Beltza



7. Rafael Lakuntza Mendinueta



8. Sonia Ulaier Reparaz



9. Iban Verdugo Markotegi



10. Blanca Susana Sureda Romero



1. Juan Frommknecht Lizarraga

Laugarren emakume alkatea

Silvia Marañon Chascok Maria Saez de Albeniz Bregañari pasako dio aginte makila

Aspaldiko partez etxarriarrek udal hauteskundeetan hiru hautagaitza zituzten aukeran: EH Bildu, UPN eta PP. Etxarriarrek koalizio subiranistaren alde egin zuten igandean eta 871 (%77,84) boto eskuratu zituen. Aurreko aldian baino 136 boto gutxiago eskuratu zituen (%13,51eko jaitsiera). Emaita horrek EH Bilduri hamar zinegotzi eman dizkio. Udalean ordezkaritza lortu duen beste hautagaitza UPN da. 81 (%7,24) etxarriarren botoak zinegotzi bat eman diote. Bestalde, aurreko hiru legegintzaldietan ordezkaritza izan duen PP udaltik kanpo gelditu da, jaso zituen 53 (%4,74) botoak ez zirelako nahikoak izan. Duela lau urte, eskuineko bi alderdiak Navarra Sumaren izenpean aurkeztu ziren (hautagaia PPkoa zen) orduan 166 (%12,40) boto eskuratu zituzten. Igandean 32 boto eta 0,42 puntu gutxiago izan ziren (%19,27ko jaitsiera).

Etxarriarren parte hartzea 9,19 puntu jaitsi zen igandean eta, horregatik, abstentzioa %37,29koa izan zen. Baliorik gabeko 87 (%7,21) boto zenbatu ziren. Txuriak, berriz, 114 (%9,45) izan ziren.

Parlamentua

Foru hauteskundeetan etxarriarrek babes gehien EH Bilduri eman diote: 655 (%54,49) boto, duela lau urte baino 36 gutxiago dira (%5,21eko jaitsiera). Udal hauteskundeekin alderatuta, koalizioak 216 boto gutxiago jaso zituen. Etxarriarren Parlamenturako bigarren aukera Geroa Bai izan zen, 327 (%27,20) boto jasota. 2019an baino 129 boto gutxiago izan ziren (%28,29) gutxiago. PSNk 30 boto gehiago (%76,92ko igoera) izan zuen eta etxarriarren 69 (%5,74) boto eskuratu zituen.

UPNk parlamenturako 66 (%5,49) babes eskuratu zituen, udal hauteskundeetan baino 15 gutxiago. PPNk, aldiz, 39 (%3,24) boto eskuratu zituen, udalerako baino 14 boto gutxiago. Erregionalistak eta popularrak Navarra Suma izenpean aurkeztu ziren aurreko deialdian eta 147 (%10,49) boto eskuratu zituzten. Lau urtetan 42 boto eta 1,76 puntu galdu dituzte.

Zurekin Nafarroak 31 (%2,58) boto bereganatu zituen. Ahal Duguk eta I-Ek 53 (%3,79) boto jaso zituzten (34 eta 19) 2019an. Beraz, 22 boto eta 1,21 puntu galdu zituzten. Voxek, azkenik, 6 (%0,50) boto kolkoratu zituen, lau gehiago (%200eko igoera).

Nafarroako Parlamenturako


ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	655
GEROA BAI	327
PSN-PSOE	69
UPN	66
PP	39
CONTIGO ZUREKIN	31
VOX	6
EGUZKILORE	2
VF	1

Bakaiku

ALDERDIA	Botoak	Ehunekoak	Eserlekuak
EH BILDU	139	%81,29	7



1. Egoitz Urritz Lazkoz*



2. Josetxo Kintana Larraza*



3. Saioa Esther Zelaia Anso



4. Ekhi Etxeberria Kaiuela*



5. Haizea Galarza Barandiaran



6. Mikel Galarza Quintana



7. Eneko Larraza Alemán

Urritzak aginte makilarekin segituko du

Udalera aurkeztutako hautagaitza bakarrarendako izan dira kargu guztiak

EH Bilduko hautagaitza izan zen udal hauteskundeetara aurkeztu zen bakarra eta horrek koalizioari gehiengo osoa eman dio. Igandean haren alde 139 (%81,29) bakaikuarrek egin zuten, duela lau urte baino 16k gutxiago (%10,32ko jaitsiera). Duela lau urterekin alderatuta, botoa ematera joan ez zirenen kopurua 7,72 puntu igo zen eta abstentzioa %28,67koa izan zen. Hautetsontzian jasotako botoetatik 33k (%16,18) ez zuten baliorik eta beste 32 (%15,69) txuriak ziren, 2019an baino hamar eta lau gutxiago.

Foru hauteskundeak

Parlamentua berritzeko hauteskundeetan EH Bilduren alde egin zuten bakaikuarrek: 123 (%62,12) boto eman zizkioten koalizioari,

duela lau urte baino hiru gutxiago (%2,38 jaitsiera). Udal hauteskundeetako emaitzarekin alderatuta, subiranistek Bakaikun 16 gutxiago jaso zituzten Parlamenturako. Geroa Baik 38 (%19,19) boto jaso zituen, 23 gutxiago (%37,70ko jaitsiera).

UPNrendako bakaikuarren 22 (%11,11) boto izan ziren. PPNk, berriz, 8 (%4,04) jaso zituen. Bi alderdiak Navarra Suma izenarekin aurkeztu ziren duela lau urte eta 33 bakaikuarren babesa jaso zuten. Beraz, 2019tik hiru boto galdu eta portzentajea 1,11 puntu irabazi dituzte.

PSNklau (%2,02) boto jaso zituen Bakaikun, aurreko aldian baino lau gutxiago (%50eko jaitsiera). Azkenik, Zurekin Nafarroak bi (%1,01) boto eskuratu zituen.

Aurreko deialdian Ahal Duguk eta I-Ek 3 (1,28) boto jaso zituen. Hau da, boto bat eta 0,27 puntu galdu dituzte.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	123
GEROA BAI	38
UPN	22
PP	8
PSN-PSOE	4
CONTIGO ZUREKIN	2

Iturmendi Udala berritu zain

Foru hauteskundeen hautetsontzia besterik ez zen izan igandean Igandeko hitzorduaren ondoren, garilaren 23an Espainiako hauteskundeak izanen dira. Eta oraingoan udala berritu ez dutez, hautagaitzarik aurkeztuko balitz, iturmendiarrek hautetsontziarekin hirugarren hitzordua izanen dute udazkenean: udal

hauteskundeak. Domekan, hori bai, foru hauteskundeetan parte hartu zuten. Nahiz eta abstentzioa 8,25 puntu igo eta %42,52koa izan. Parlamentua berritzeko hauteskundeetan EH Bilduk jaso zituen iturmendiarren babes gehienak: 65 (%33,16), aurreko deialdian

baino hiru boto gehiago (%4,84ko igoera). Geroa Bairendako 44 (%22,45) boto izan ziren, 2019an baino 14 gutxiago (%24,14ko jaitsiera). UPNk 31 (%15,82) boto jaso zituen, PPk, berriz, 23 (%11,73). Navarra Suma gisa aurkeztu ziren duela lau urte eta zazpi boto gutxiago eskuratu zituzten orduan (%14,89ko igoera) eta portzentajea 5,28 puntu igo dituzte. PSNren aldeko botoak 19 (%9,69) izan ziren, duela lau urte baino

hiru gutxiago (%13,64 jaitsiera). Zurekin Nafarroarendako 11 (%5,61) boto izan ziren. 2019an Ahal Duguk eta I-Ek 20 (%XX) boto eskuratu zituen. Beraz, lau urtetan 9 boto eta 0,21 puntu galdu dituzte. Azkenik, Ciudadanosek boto bakarra (%0,51) jaso zuen. Aurreko deialdian gertatu bezala, oraingoan ere ez zen boto baliogabe bakar bat ere izan. Txuriak berriz, bi izatetik bakararra (%0,51) izatera pasa ziren.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	65
GEROA BAI	44
UPN	31
PP	23
PSN-PSOE	19
CONTIGO ZUREKIN	11
C'S	1
EGUZKILORE	1

Urdiain


ALDERDIA	Botoak	Ehuneakoak	Eserlekuak
EH BILDU	232	%86,25	7




1. David Carmelo Oroz Alonso



2. Mikel Azkona Unanua



3. Ander Galarza López de Goikoetxea



4. Imanol Etxarri Galartza



5. Bingen Galartza Iparragirre



6. Oihane Agirre Ulaia



7. Julen Goikoetxea Urdiain

Orozen hirugarren legegintzaldia

Udala EH Bilduko zinegotziz osatuta dago

Domekan 232 (%6,25) urdindarrek EH Bilduren hautagaitzaren aldeko botoa eman zuten udal hauteskundeetan. Duela lau urte baino 66 boto gutxiago izan ziren (%22,15eko jaitsiera). Abstentzioari dagokionez, 11,74 puntu handitu zen eta %44,62an gelditu zen. Urdindarrek emandako 14 (%4,95) boto baliogabeak izan ziren, duela lau urteko kopuru bera. Txuri botatu zutenak, berriz, 37 (%13,07) izan ziren, lau gehiago.

Parlamentua
Foru hauteskundeetan urdindar gehienek EH Bilduren alde egin zuten, 161 (%56,10). Aurreko deialdiarekin alderatu-

ta zazpi boto gutxiago (%4,17ko jaitsiera). Udala hauteskundeekin alderatuta koalizioak Urdiainen 71 boto gutxiago eskuratu ditu. Geroa Baik urdiaindarren artean 77 boto (%26,83) lortu zituen, 2019an baino 62 boto gutxiago (%44,60ko jaitsiera). UPNri urdindarrek 19 (%6,62) boto eman zizkioten eta PPNri 4 (%1,39). Duela lau urte bi alderdiak kide zituen Navarra Suma koalizioak 26 (%7,30) boto eskuratu zituen. Bi alderdiek deialditik deialdira hiru boto galdu eta 0,71 puntu irabazi dituzte. PSNk, berriz, 11 (%3,83) boto bereganatu zituen, aurreko deial-

dian baino bi gehiago (%22,22ko igoera). Zurekin Nafarroarendako hamar (%3,48) boto izan ziren. Boto kopuru bera lortu zuten duela lau urte I-Ek eta Ahal Duguk (6 eta 4), baina 0,67 puntu galdu dituzte.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	161
GEROA BAI	77
UPN	19
PSN-PSOE	11
CONTIGO ZUREKIN	10
PP	4
EGUZKILORE	1

Ziordia

ALDERDIA	Botoak	Ehuneakoak	Eserlekuak
EH BILDU	144	%68,57	5
GEROA BAI	58	%27,62	2




1. Olatz Irizar Martínez



2. Rosa Maria Mendoza Arregi



3. Oscar Otsoa Etxeberria



4. Mikel Percas Gastesi



5. Mireia Saez Bengoetxea



1. Miguel Angel Agirre Larraza



2. Fernando Fuste Martín

Irizarrek gidatuko du udala

Udalean zinegotzi kopurua bi indarren artean banatu da 2019an bezala

Gehiengo absolutuari heldu zion Ziordiko EH Bilduk domekan 144 (%68,57) boto eskuratuta, bost boto gehiago (%3,60ko igoera). Emaizta horrek bost zinegotzi eman dizkio. Geroa Bairendako 58 (%27,62) boto izan ziren, 23 babes gutxiago (%28,40ko jaitsiera). Koalizioak emaitza horrekin bere bi zinegotziei eutsi die. Botoa emateari utzi zioten ziordiarren %28,23k. Aurreko udal hauteskundeekin alderatuta abstentzioak 5,93 egi zuen gora. Hautetsontzitik baliorik gabeko boto bakarra (%0,47) atera ziren, aurrekoan baino bat gutxiago. Baliorik gabeko botoak zortzi (%3,79) izan ziren, 2019an bezala.

Foru hauteskundeak
Parlamentua berritzeko hauteskundeetan 113 (%54,07) zior-

diarrek EH Bilduren alde egin zuten, aurreko deialdian baino sei boto gutxiago dira (%5,04ko jaitsiera). Udal hauteskundeekin alderatuta koalizioak 31 boto gutxiago eskuratu zituen. Geroa Bairendako 46 boto izan ziren foru hauteskundeetan, 13 boto jaitsiera (%22,03ko beherakada). Udal hauteskundeetarako baino dozena bat boto gutxiago eskuratu ditu koalizioak beste hautetsontzian. PSNk Ziordian 15 (%7,18) boto bereganatu zituen, aurreko aldian baino zortzi gehiago (%114,29). UPNrendako 10 (%4,78) boto izan ziren eta PPN, aldiz, 9 (%4,31). Biek osatutako Navarra Suma koalizioak 28 boto eskuratu zituen 2015ean, domekan baino bederatzire boto eta 3,19 puntu gehiago. Zurekin Nafarroako 9 (%4,31) babesen jabe egin zen. Ahal

Duguk eta I-Ek 8 (6 eta 2) eskuratu zituzten duela lau urte. Geroz, boto bat eta 0,8 puntu igo da esparru politiko hori. Azkenik, Voxen aldeko boza bakarra izatetik bi (%0,96) izatera pasa ziren.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	113
GEROA BAI	46
PSN-PSOE	15
UPN	10
CONTIGO ZUREKIN	9
PP	9
VOX	2
EGUZKILORE	1
VF	1

Altsasu

ALDERDIA	Botoak	Ehuneakoak	Eserlekuak
GEROA BAI	2.092	%59,99	9
EH BILDU	961	%27,56	4
CONTIGO ZUREKIN	172	%4,93	0
UPN	115	%3,30	0
PP	93	%2,67	0



1. Javier Ollo Martínez



2. Idoya Ibañez De Opacua Amillano



3. Manuel Bergera Ijurko



4. Mari Carmen Viana Murga



5. Julen Diaz Oiarrbide*



6. Santiaga Luceño Arias



7. Pedro José Iglesias Mendiluze



8. Pedro Jiménez Elvira




9. Joseba Jokin Zelaia Oiarrbide



1. Ainize Ibargutxi Iparraguirre



2. Jesus Galartza Zelaia



3. Amaia Abucide Aylagas

Geroa Baik gehiengo osoari eutsi dio

Aurreko legegintzaldian bezala udalean bi koaliziok lortu dute ordezkari-tza

Bost zerrenda aurkeztuta ere, aurretik zeuden biak jarraituko dute udalean. Geroa Bai 2019an lortu-tako gehiengo absolutuari eutsi zion altsasuarren 2.092 (%59,99) botoei esker. Aurreko deialdia bai-no 375 babes gutxiago dira (%15,20ko jaitsiera). Emaizta horrek 9 zinegotzi eman dizkio, baino bat gutxiago. Udalean dagoen bestea EH Bildu da. Altsasuarrek haien aldeko 961 (%27,56) boto eman zituzten, aurreko deialdian 2019an baino 118 gehiago (%14ko hazkundea). Ondorioz, koalizioak 4 zinegotzi izanen ditu, bat gehiago.

Gainontzeko hiru zerrendak ez dute ordezkari-tzarik lortu. IU-Zu-rekin Altsasuk 172 (%4,93) boto jaso zituen. Duela lau urte Ahal Duguk eta IUk 174 boto eskuratu zituzten, bi gutxiago eta 0,52 puntu gutxiago. Navarra Suma dese-ginda, erregio-nalistak eta popu-larrak Altsasun ze-rrenda aurkez-tea erabaki zu-ten. UPNk 115 (%3,30) boto eskuratu zituen eta PPNk, berriz, 93 (%2,67). 2019an koalizioan aurkeztuta baino 4 boto gutxiago eskuratu zituzten, baino 0,6 puntu gehiago. UPN udalean 2003an sartu zen 661 botorekin eta ordutik beheranzko joera du. PPN 2011n aurkeztu zen 270 boto lortu zituen eta ordutik behera egin du. 2015ean baino 136 eta 43 boto gutxiago dituzte gaur egun.

Altsasun abstentzioak 6,79 puntu egin zituen gora eta %37,58koa izan zen. Hautetsontzietatik ateratako 62 (%1,75) boto baliogabeak ziren, duela lau urte baino 33 gehiago. Txuri botatu zutenak, berriz, 54 (%1,52) izan ziren, bi gehiago.

Foru hauteskundeak
Geroa Baik 1.292 (%36,95) boto eskuratu zituen, 369 gutxiago dira (%22,22ko jaitsiera). Udal hautes-kundeekin alderatuta, 800 boto gutxiago. EH Bilduk 933 (%26,68) boto bereganatu zituen, 33 boto gutxiago, (%3,42ko jaitsiera), eta udalean baino 28 gutxiago. PSNk 527 (%15,07) boto eskuratu zituen, 2019an baino 91 boto gehiago (%20,87ko igoera). UPNk 308 (%8,81) boto eskuratu zituen, udalerako baino 193 gehiago. PPNren alde-


ko 117 (%3,35) boto izan ziren, udalerako baino 24 gehiago. 2019an Navarra Sumak 485 (%12,33) boto eskuratu zituzten, 60 boto eta 0,07 puntu gutxiago. Zurekin Nafarroak 179 (%5,12) boto eskuratu zituzten, 7 gehiago. Aurrekon Ahal Dugu eta I-Eren artean 316 boto eskuratu zituzten (226 eta 90). Beraz, 137 boto eta 2,91 puntu galdu zituzten.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
GEROA BAI	1292
EH BILDU	933
PSN-PSOE	527
UPN	308
CONTIGO ZUREKIN	179
PP	117
VOX	61
EGUZKILORE	10
PUM+J	6
VF	5
C'S	2

Olatzagutia

ALDERDIA	Botoak	Ehuneakoak	Eserlekuak
EH BILDU	366	%61,72	7
PSN-PSOE	79	%13,32	1
UPN	75	%12,65	1



1. Joseba Vizuite Askargorta



2. José Manuel Armendariz Catalán



3. Alea Orabengoa Caro



4. Asier Vicente De Miguel



5. Izaskun Landa Lasa



6. Unai Ruiz Larraza



7. Urtzi Marquínez Grados



1. José María Acerete Sánchez

Vizuetek alkatetzan segituko du

Udalean hiru alderdik izanen dute ordezkari-tza

EH Bilduk gehiengo osoari eutsi zion domekan 366 (%61,72) boto eskuratu. Duela lau urte baino 21 boto gutxiago dira (%5,43ko jaitsiera). Emaizta horrek koalizioari zinegotzi bat gehiago eskuratzeko modua eman zion, orain zazpi ditu. PSNk 79 (%13,32) boto jaso zituen. Sozialistek aurreko deialdiarekin alderatuta 81 babes galdu dituzte (%50,63ko jaitsiera), eta, ondorioz, bi zinegotzi izatetik bakarra izatera pasa da. Hauta-gaitza sozialistaren historia ibil-bidea gorabeheratsua da, baina beherako joera du.



1. Jon Angulo Martínez

2015ean, 87 boto gehiago eskuratu zituen. 2019an Navarra Sumak zortzi boto gehiago jaso zituen. Hiru alderdietako ordezkariak izanik, aniztasun gehien duen ibarreko udala Olatzagutikoa.

Olatzagutian abstentzioa %44,12koa izan zen, duela lau urte baino 7,48 puntu handiago. Haute-tsontzitik baliorik gabeko 25 (%4,05) boto atera ziren, aurrekoan baino 15 gutxiago. Boto txuriak, berriz, 26 gehiago izan ziren: 73 (%11,81).

Parlamentua

EH Bilduk 258 (%42,23) boto jaso zituen, aurrekoan baino 16 gutxiago (%5,84ko jaitsiera), eta udal hauteskundeekin alderatuta 108 boto gutxiago. Geroa Bairen alde 139 (%22,75) olaztiarrekin egin zuten, 2019an baino 49 boto gutxiago (%26,06ko jaitsiera). PSNk 91 (%14,89) babes jaso zituen, 10 boto gutxiago (%9,90ko jaitsiera) eta udalerako baino 12 boto gehiago. UPNrendako olaztiarren 42 (%6,87)

boto izan ziren, udalerako baino 33 gutxiago. PPNk, berriz, 22 (%3,60) boto bereganatu zituen, Navarra Sumak baino 9 boto eta 1,43 puntu gutxiago. Zurekin Nafarroak 22 (%3,60) babes jaso zituen. Ahal Duguk eta I-Ek elkarrekin 19 boto eta 2,2 puntu gehiago (27 eta 14) eskuratu zituzten 2019an.

Nafarroako Parlamenturako

ALDERDIA	Botoak
EH BILDU	258
GEROA BAI	139
PSN-PSOE	91
UPN	42
CONTIGO ZUREKIN	22
PP	22
VOX	16
EGUZKILORE	3
VF	1



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Zerrendak

Zerrendak egitea eguneroko gauza da. Zuzen edo oker egiteak bere ondorioak izaten ditu, normalean.

Batzuetan, etxeko gauzetarako da. Erosketa egiteko garaian edo bidaia batera eraman beharreko gauzak apuntatzea. Erosketaren kasuan zerbait ahazten badugu, agian bigarren buelta eman behar dugu edo besterik gabe hurrengo baterako utzi. Baina bidaiaren kasuan larriagoa izan daiteke.

Zerrenda publikoa egiten dugunean, aldiz, normalean, hanka sartze galanta egiten dugu eta hor betiko geldituko da.

Pentsa liburu bat idatzi dugula eta, akaberan, esker onak emateko garaian laguntzaileraren edo talderen bat aipatzea ahaztu zaigula. Barkaezina.

Horrelako zerbait gertatu da bukatu berri den hauteskundetarako kanpainan. Alderdi politiko nagusietako batek sekulako lana hartu du, gutxienez, Lodosako eta Bianako biztanleen ama hizkuntzak jasotzeko. Eta biztanleen botoa eskatzeko honako hizkuntzen zerrenda osatu dute: gaztelania, portugesa, ingelesa, arabiera, errumaniera, frantsesa, germaniera eta ukrainiera. Ziur ez dagoela txinatarrik? A... eta euskaldunik ere ez? Jakina baietz.

Orduan, zer gertatu da? Nahita edo ahaztuta? Eta zer esan nahi digute? Euskaldunon botorik ez dutela nahi edo gaztelania idatzia ere ulertzeko aparteko gaitasuna daukagun bakarrak garela? Ziurrenik,

ZER ESPERO DEZAKEGU EUSKALDUNOK GOBERNU BERRITIK?

horretaz galdetuta erantzuna izan liteke: "ez hartu gaizki, euskaldun guztiok gaztelania ere ulertzen duzue". Bakarrak munduan.

Kazetaren antolaketa dela eta, zutabea hausnarketa egunean idazten ari naiz, beraz, ez dakit bozketen emaitzak nolakoak izan diren. Baina suposatzen dut aipatutako alderdiak Nafarroako lehendakaritza jasotzeko aukera handiak dituela.

Zer espero dezakegu euskaldunok Gobernu berritik? Ziurrenik gaitasun handikotzat hartuak izatea baina bigarren mailako bizilagunak izatera kondenatuak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Azken txanpa hasi da

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Sakanan, AHT-ren aurkako borroka 2007an hasi zen herriz herri hainbat talde osatzen hasi zirenean. Euskal Autonomia Erkidegoan AHT-ren lanak 2006an hasiak ziren Gasteiz ondoko Urbinan eta mega proiektu suntsitzailen honen aurkako aurkaritza pil-pilean zen Euskal Herri guztian Lemoiz eta energia nuklearraren aurkako borrokaren ondoren izan den aurkaritza handiena eta anitzena batuz.

Gaur egun Ipar Euskal Herrian AHT-ren proiektua etenik dago gutxien gutxienik 2042ra arte, betiko ez bada, eta EAEn azpiegitura lanak oso aurreratuak dituzte (zubiak, tunelak akueduktuak) baina hiriburuetako sarrerak

gauzatzeko denbora eta diru itzela beharko dute. Honez gain, gainejitura guztia falta da (burdinbideak, elektrifikazioa, segurtasun neurriak...) kostu osoaren %45 inguru izaten dena. Nafarroan lanak 2011n hasi zituzten eta 12 urteren buruan Castejon eta Tafalla arteko bide tarteak besterik ez dituzte abiatu, lanak egiteko orografia lau eta errazenean. AHT-an egiten ari diren inbertsio maila eskasa ikusirik, hamarnaka urte beharko dituzte Nafar Korridorea gauzatzeko, inoiz bukatzen baldin bada. Eta hau guztia krisi ekosozial baten baitan eta datu guztien arabera aldaketa klimatikoaren aurreikuspen ezkorrenak baieztatzen ari direnean.

Honek esan nahi du AHT ez dela sekula Sakanara helduko? Baita zera ere!

Orain dela hiru bat aste AHT-ren ibilbidea Sakanan zein izanen den erabakitzeke, zundaketak egiteko baimenak eskatzen hasi dira udaletan, Nafar Korridorea Gasteizekin edo Ezkio-Itsasorekin lotuko duten erabakitzeke.

Sakandarrendako, AHT gelditzeko azken txanpa oraintxe bertan hasi da. Zundaketak gelditu behar ditugu. Eraikitze proiektua idatz dezaten galarazi behar dugu, ezen, ondoren, aurrekontuetan diru partidak eta hondeamakinak etorriko bailirateke.

Beraz, orain da unea sarraskia saihesteko. Sakana altxa hadi!

GUTUNA

Zentzua, non galdu zenuten?

MALUSA BARANDIARAN BENGOTXEA

Leo etxetik ihes egina zen. Horixe egiten dute libre bizi diren katuek. Igandean bere bila atera ginen. Asteartean Facebooken agertzen da bere argazkia, kalean (etxetik hurbil) topatu dutelako. Lepoko antiparasitarioa zeraman, baina ez du txipik. Aurkitu zuen "ongilearekin" harremanetan jarri ondoren, etxera ekarriko zuela esan zidan, baina, beranduago, Leo gaixorik zegoela, nahiz eta

horren frogarik ez erakutsi, eta Abadiñon dagoen babes elkarte batera eraman omen zuela.

Asteartean bagoaz Altsasutik, Leo eta gure bizilekutik, Abadiñora (70 km-tara) eta ikusita, elkarte horren beste "ongileren" batek ez diela gure telefono deiei erantzuten (goizean, geratu ondoren, arratsaldean, telefonoz hitz egingo genuela) eta ez digutela gure katurik emango (baditugu bideo eta argazkiak Leorekin, gure katua dela frogatzeko), bide poliziala aukeratzeko beharretan ikusten dugu gure burua, ez

baitugu ulertzen "ongileek" gure katua ez ematea haien baldintzak ez baditugu betetzen, jakinda Leo etxekoa dugula.

Hau dena, duela hilabete bat eta erdi pasa. Leo gabe jarraitzen dugu eta harrituta gaude, baita haserre eta minduta ere. Bai, noski, badakigu munduan sufrimendu handia pairatzen ari den jendea dagoela, eta arazo larriak daudela... baina Leo gure katua da, gure etxean bizi da... mesede handirik ez diote egin eta guri mina, lapurtu egin digutelako maite genuen Leo, gure etxeko katua.



SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056


Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



FESTAK

IRURTZUN

TRINITATE FESTAK

EKAINAK 2 Ostirala

21:00 Raimundo el Canastero taldearen kontzertua, *Bira Nafarroan Barna* programaren barruan, kultur etxean.

EKAINAK 3 larunbata

09:00 VIII. Ergako Trinitatera Erlojupeko Igoera, Guan Taldeak antolatuta, Aska plazatik.
12:30 Irurtzun Kantuz, Aizpea Euskara Taldeak antolatuta, Foru plazatik.
14:30 Herri bazkaria, Atakondoa ikastetxeko patioan.
17:00 Mutil Gazteak txarangarekin kalejira, patiotik.
17:30 XXXI. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalak.
18:30 Erraldoien eta Buruhandien konpartsa eta musika eskolako taldeen kontzertua, plazan.
20:00-22:00 eta 00:00-03:00 On Festa musika emanaldia, Foru plazan.

EKAINAK 4 Igandea

Goizean, Erga mendiko Trinitatera erromeria.
13:00 Txistu Bermuta, Piku plazan.
17:00-20:00 Zuresku zurezko joko tradizionalak, Foru plazan.
18:00 Gure Pilota Pala Elkarteko pala partidak, pilotaleku irekian.

ETXARRI ARANATZ

EUSKAL FESTAK

EKAINAK 2 Ostirala

20:30 Bertsolariak, txoznan, Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta.

EKAINAK 3 Larunbata

EUSKAL FESTA

GAZTE ASANBLADAK ANTOLATUTA

11:00 Herri eragileen azoka, plazan.
12:00 Txupinazoa, plazan.
12:15 Herri kirolak, plazan.
13:00 Etxarrin kantuz.
15:00 Bazkaria, plazan.

Tiketak: Xapatero tabernan, 15 eurotan.

16:00 Txapel jaurtiketa txapelketa.
16:30 Bingoa.
17:30 Ikastolak antolatutako taloak, plazan.
19:00 Sakatu elektrotxaranga.
22:00 Kontzertuak: Zinez, Deserrite, Bad Sound System eta Bungalo Dub Lengualerta taldeak, plazan.

EKAINAK 4 igandea

EUSKAL JAIK 100 URTE

13:00 Jose Luis Erdozia hizkuntzalariari omenaldia: Euskaltzaindia, Etxarri Aranazko Abesbatzaren emanaldia, bertsolariak eta olerkariak, eta auzatea, plazan.
19:30 Demode Quartet taldearen emanaldia, plazan.

ITURMENDI ETA BAKAIKU

TRINITATE EGUNA

EKAINAK 4 Igandea

Goizean, Santa Marinara erromeria.
12:00 Meza, ermitan.
13:00-14:30 Trikitilariak eta bazkaria.
18:30 Iturmendira jaitsi eta auzatea San Pedron.
20:00-00:00 DJ Eztanda, Iturmendiko plazan.

Urdiainen 4.250 euro
Josefina Arregiren alde

Urdiaindarrek maiatzaren 20an antolatutako bazkari eta diru bilketa arrakastatsuari esker ekarpen garrantzitsua egin diote Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoari. Egitasmo handiak ditu esku artean, lehena, eguneko zentroa eraberritzea

Maider Betelu Ganboa URDAIN

Guztia Altsasuko Iortia kultur guneko zinema emanaldi batean hasi zen. "Film bat ikustera joan ginen lagun artean eta Josefina Arregi Klinika laguntzeko spota ikusi genuen. 'Zergatik ez dugu Urdiainen zerbait egiten?' pentsatu genuen. Eta horrela hasi ginen" kontatu digu Araceli Mendia Galarzak.

Bilerak deitu zituzten, "eta Urdiainen bazkari-afariak egiteko material guztia dagoela kontuan hartuta, herri bazkaria antolatzea erabaki genuen, paella". Hamar urdiaindarrez osatutako taldea hasi zen hasierako antolaketan, baina gerora adin guztietako urdiaindarrak batu zitzaizkien. "Oso erantzun ona izan dugu, jende askok lagundu du" nabarmendu du Mendiak.

Maiatzaren 20a jarri zuten herri bazkaria egiteko data. Aurreko domekan, maiatzaren 14an, mahaia jarri zuten, alde batetik, bazkarirako txartelak saldu eta, beste aldetik, Zero Bonuak saltzeko. Azken horiek bazkarira joan ezin zutenengan pentsatuta egin zituzten, beraien ekarpena egiteko modua izan zezaten. Eta arrakastatsua izan zen.

Guztira 150 pertsona elkartu ziren frontoian egin zen herri



Urdiaindarren eta klinikako ordezkarien talde argazkia. UTZITAKOA

bazkarian, primerako giroan. Tabernatxoa ere bazegoen nahi zuen guztiak tragoa hartzeko. Jakina, herri bazkariko plater izarra haragi paella izan zen. Menua osatzeko entsalada eta postrea izan zituzten mahaiaren bueltan eseri zirenak. Portuko okindegiak ogia jarri zuen, eta Lizarraga Granjak arrautzak. Bestalde, herriko eta inguruko komertzioek emandako produktuekin zozketa egin zen: Mari Carmen ile apaindegiko produktu sorta, Urdiaingo botikako produktuak, Lopez de Goikoetxea

harategiko lauzpabost txuleta, Akeita kafetegian zortzi gosari eta El Ventorro jatetxeko lau menu. "Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, oso eskuzabalak izan ziren, nabarmendu nahi izan du Mendiak.

Jakina, Urdiaingo herriari ere eskerrik beroenak eman dizkiete antolatzaileek, "erantzuna bikaina" izan zelako. Horren isla, maiatzaren 31n, asteazkena, Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko kontu korrontean egin zuten diru sarrera: 4.250 euro.

MUSIKAZ BLAI
Antonio IRIARTE UGARTE
Musikaria / ATARRABIA-MUTILOA

Ezetz asmatu zeintzuk diren bere kantu kuttunak
Piztu irratia!

Ekainak 2, ostirala,
10:30etik aurrera
Beleixe irratian

beleixe 107.3 FM

Irurtzungo osasun eremua OCDEren ikerketan

Osasun egoerari eta Lehen Arretan emandako zerbitzuei buruzko nazioarteko lehen ikerketan parte hartu du beste 7 eskualderekin batera. Hautatutako paziente helduek gutunak jasoko dituzte, borondatzeko inkesta bati erantzuteko gonbidapena eginez

IRURTZUN / SAKANA

Nafarroak PaRIS (pazienteen adierazleen inkestak, ingelesezko sigletan) ikerketan parte hartuko du. Ikerketa horren bidez pertsona helduek beraien osasun egoerari buruz hautematen dutena ezagutu nahi dute. Baita Lehen Arretan jasotako zerbitzuen esperientzia nolakoa izan den ere. Emaiza eta esperientzia neurketa hori egiteko bereziki baldintza kroniko bat edo gehiago dituzten pazienteengana joko dute. Horiek jasota, ikerketaren helburuak dira, batetik, pertsonengan zentratuagoak dauden osasun sistemak garatzea. Bestetik, emaitzei eta pazienteen osasun esperientzien inguruko adierazle sorta bat sortu nahi dute. Horiek fidagarriak, baliagarriak eta nazioartean konparaketak egiteko baliagarriak izatea nahi dute.

Foru administrazioak jakinarazi duenez, Nafarroako zortzi osasun eremuko parte hartuko dute ikerketa. Haien artean dago Irurtzungo osasun eremua, bere baitan, Ibarrean Arakil, Irurtzun, Irañeta, Uhartea Arakil eta Arruazu hartzen dituen. Gobernuak jakinarazi duenez, Irurtzungo osasun eremuan paziente heldu batzuk aukeratu dituzte. Haiek ikerketan parte hartzeko gonbi-



Gizonezkoa Irurtzungo osasun etxean sartzen. ARTXIBOA

dapena eginen dien gutuna jaso-ko dute. Ondoren, haiekin harremanetan jarriko dira baime-na lortzeko eta telefono bidezko inkesta egiteko. Inkestak 25 minutu iraunen du, gutxi gorabehera, eta beren osasun-goerari buruzko galderen zerrenda bat izanen da, baita parte hartzaileek lehen mailako arretako zentroko talde profesionalen aldetik jasotzen dituzten osasun arretarekin lotutako iritzien eta esperientzien zerrenda ere. Deiak egiten maiatzaren 31n hasi ziren. Gobernutik azaldu dutenez, "in-

kestan parte hartzea borondatzekoa da, emandako informazio guztia isilpean gordeko da".

Pazienteekin batera, Irurtzungo osasun eremuko hainbat profesional ere proiektuan parte hartzera gonbidatu ditu. Haien kasuan online inkesta bat erantzun beharko dute. Besteak beste, honako gaien inguruan galdetuko diete: Lehen Mailako Atentzioko zentroaren antolamendu-ezaugarriak, pazienteen informazio klinikoaren erregistroa eta paziente kronikoen kudeaketa jorratuko ditu.

Kontu Ganberaren gomendioak betetzen ari da udala

Hainbat arlotan behar bezala jokatzeko neurriak hartuak ditu. Epaitegian salaketa bat jarri du ere

IRURTZUN

Kontu Ganberak Nafarroako administrazio publikoaren kontuen, langileria eta kontratazioen legezotasuna aztertzen ditu, eta azterketa bakoitzaren ondoren txostena argitaratzen du. Urtero zenbait udal aukeratzen ditu eta azterketa egiten die. Joan den urtean aukeratutako toki administrazioetako bat Irurtzungo Udala izan zen. Haren 2021eko txostena egiteko kontu ikuskari bat lastailean eta azaroan lanean aritu zen. Gerora Kontu Ganberako langile gehiago izan ziren.

Irurtzungo Udalaren kasuan, Kontu Ganberak bere behin behin-eko txostenean antolakuntza, diru kontuei, kontrolari eta langileriarri buruzko gomendioak egin ditu. Aitor Larraza Carrera alkateak jakinarazi duenez, "jasotako gomendio eta proposamen gehienak, dagoeneko, bete ditugu. Haiekin askotan egin ditugu bilerak. Gauzak argitzeko eta beharrezko neurriak hartzeko prest egon gara beti".

Erakunde ikuskatzaileraren txostenean jaso denez, "barne kontrola oso eskasa dela. Izan ere, finantza kudeaketa langile bakar baten esku dago". Horri aurre egiteko, besteak beste, udalak plantilla organikoaren egokitasunari eta lanpostuen balorazioari buruzko azterketa bat egiteko agindu dio kanpoko aholkularitza bati. Helburua da "lanpostu bakoitzaren funtzioak argi eta garbi definitzea, barne kontrol eta fiskalizazio handiagoa

egon dadin; eta egungo plantilla organikoak funtzio horiek guztiak betetzeko duen egokitasunaren azterketa egitea".

Bestetik, Ganberak langile batak "baimenik gabe eginiko funts mugimenduak" atzeman ditu. Horren ondorioz, udalak bere interesak defendatzeko, Zaintza Epaitegian salaketa jarri zuen, baimenik gabeko diru-funtsen mugimenduak ikertzeko, akatsa den edo delitua den ebatz dezan.

Bestalde, langile batzuek ustez soldatan plantilla organikoak jasotakoa baino lan osagarri handiagoak kobratzen dituztela jaso da txostenean. Guztien artean 5.128,88 euro gehiago liratekeela ondorioztatu du. Horren jatorria argitzeko prozesua abiatu zuen eta, dagoeneko, zuzendu du. Horretarako, besteak beste, plantilla organikoak eguneratu du.

Kontuen Ganberak barne kontrola hobetzeko premia azpimarratu zion Irurtzungo Udalari. "Udaletxera heltzen diren faktura guztiek arlo bakoitzeko arduradunaren sinadura behar dute. Banku kontuetarako sinadura bikoitza eskatzen du: alkate eta kontu-hartzailearena". Udalak araudia berritu eta eskatutakoa bete du. Irurtzungo Udalaren iritziz, "Ganberak ohartarazitako deskoadratzeak askotan prozedura akatsen edo teknikoki gaizki gauzatutako erabakien ondorio izan dira. Ez dira erabaki arbitrarioak edo subjektiboak, ez teknikariek ez udaleko politikariek hartutakoak".

*Festak badatoz,
zurekin lan egiteko prest gaude!*

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 996979279 - Gailake 82208 11 - ALTASU

PORTUKO

Gosari goxo-goxoak egunero
Etxarri Aranatz

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

www.promocionesamayna.com

IRURTZUN BERRI

948 071 935

Ikasgelako proiektuarekin Elhuyar Zientzia Azokara

Lau proiektu aurkeztuko dituzte Korazonistak ikastetxeko ikasleek asteburuan Bilbon

ALTSASU

Elhuyar Zientzia Azokaren helburua da gazteen artean zientziarekiko zaletasuna suspertzea eta zientzia kultura bulkatzea eta zabaltzea. Gainontzeko hiri-buruetan egindako azoken ondoren, Bilboko Areatza Elhuyar Zientzia Azokaren egoitza izanen da garagarriaren 2tik 4ra, ostiraletik igandera. Azoka martxan jartzen den unetik aurrera, gazteek ikasturtean landutako ikerketa proiektuak eta teknologia proiektuak izanen dira protagonista. 12 eta 18 urte arteko gazte ikertzaileek ikasturtean zehar egindako 200 proiektu baino gehiago erakutsiko dituzte. Guztiek zientzia, teknologia, ingeniartza, artea eta matematikekin lotutako proiektuak dira. Horien artean daude Altsasuko Korazonistak ikastetxeko lau talde.

Aurretik Iruñeko Zientzia Azokan izan ziren. "Hura ez da lehia-korra, entsegu modukoa izan zen. Bilbon aurkeztuko dituzten lau proiektuak han erakutsi zituzten", azaldu du, Leire Mazkianan Bergera irakasleak. Gaineratu duenez, "ikasleek beraien proiektuak euskaraz azalduko dituzte eta ikertzaileak haiek

ebaluatuko dituzte". Ikasleek egindako proiektuek "emaitza politak" izan dituela jakinarazi du Mazkiananek. Ikasleak entseatzen ibili dira egunotan.

Azaldu duenez, "Iruñekoa nahi-ko esperientzia polita izan zen ikasleendako. Haien lana aurkezteko aukera izan zuten, eta batzuen kasuan beste ikastetxeek egindakoak ikusteko aukera izan zuten. Gauza interesgarriak zeuden, asko teknologikoak ziren, robotak ikusi zituzten... Beraien-dako pixka bat harrigarria izan zen, edonoz ez delako robotik ikusten". Irakasleak gaineratu duenez, halako jarduerak "ikasleendako estimulagarriak dira. Gainera, beste gaiei buruzko interesa suspertzea eragiten du".


Ikasleek egindakoak *Biberlau* izeneko marko orokorraren barruan kokatzen dira. Haren bidez berhezi, berrerabili, berreskuratu eta bideratu kontzeptuak sustatu nahi dituzte. Lau kontzeptuak Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 agendaren baitan kokatu dituzte. Eta hori XXI. mendeko hezkuntza erronkekin eta ikastetxearen egitekoekin uztartzen da.

DUELA 25 URTE...



Bi herri Santa Marínan

Bakaikuarrek eta iturmendiarrek partekatzen duten Trinitate ermitaren bueltan elkartu ziren garagarriaren 7an. Lainotutako eguna izan zen, goibela, baina bi herrietakoez aparte, ermitaren inguruan aldameneko herrietakoak ere izan ziren. Bakaikuarrei zegokien urte hartan antolakuntza. 40 litro ardo banatu zituen udalak zilarrezko katiluetan. Bi udaletako kideek elkarrekin bazkaldu zuten. Herritarrek ere majo bazkaldu zuten. Musika ere ez zen falta izan.



"Klinikarekin aritu gara"

SARA ETA UNAX DBHKO 4KO IKASLEAK

Zer proiektu egin duzue?

Josefina Arregi Klinikarekin egin dugu. Gaixo eta zaintzaileekin egon ginen. Ikertu dugu zaintzaileak nola bizi diren, zer baldintzatan lan egiten duten, eta nola lagundu ditzakegun.

Zertan egon zineten haiekin?

Gaixoei joan nahi luketen lekuak esateko eskatu eta errealitate

birtualeko betaurrekoekin ikusi zituzten. Haiek ikusi bitartean guk behatu genuen. Erreakzio aniztasun handia egon zen.

Gehiago egin zenuten?

Bai. Langileek eman zizkiguten jantzi batzuk eta pertsona horiek nola bizi diren simulatzen zuten. Ondoren zaintzaileen inguruko informazioa bilatu eta eskuratu

genuen. Galdetegia egin eta 65 bat pertsonek erantzun zuten eta datu horiek grafiko batzuk egin genituen. Ondorioak atera genituen, laguntzeko eta errazagoa izateko.

Zein ondorio?

Zaintzaileek atseden denbora izan behar dute. Askok ez dute denborarik haiendako. Horrek psikologia arazoak, antsietatea eta kasu gutxitan depresioa sortzen du. Bizi kalitatea behar dute.



"Emaitzak oso onak dira"

MARTA ETA BEATRIZ DBHKO 4KO IKASLEAK

Zer da Jasopalimo?

Mugikorrak garbitzeko xaboi iraunkorra da. Etxean erabilitako olio hartu, ekarri eta sosa kaustikoarekin eta urarekin xaboa egiten dugu. Oso dibertigarria izan zen. Baina denbora asko behar duzu.

Xaboiarekin zer egiten duzue?

Hilabete batzuk uzten dugu, ontzen. Ondoren iragazten dugu eta baliagarria den edo ez ikusten dugu.

Proiektua egin baduzue, balio duenaren seinale da.

Bai. Ez genuen pentsatu oso ona izanen zenik, baina emaitzak oso onak izan dira.

Zertarako balio du xaboiak?

Telefono mugikorrak garbitzeko egin dugu. Egutero mugikorrarekin egoten gara, eta zikina dago; garbiketa behar du. Horrela, olio birziklatzen dugu.

Ongi garbitzen du?

Bai, bai. Alkoholarekin konparatu genuen gure xaboa eta emaitza bera izan zen.

Xaboiarekin zer egingen duzue?

Sei xaboi besterik ez genituen egin. Olio dugu, emaitzak onak izan zirenez, gehiago egin dezakegu eta saldu.



"Iruzur osasungarriak dira"

UXUE ETA IMANOL DBHKO 2KO IKASLEAK

Zer egin duzue?

Ikusi dugu hamaiketako osasungarriak hartzen ez dutela; fruta, ogitartekoak eta halakoak ez dituztela jaten. Eta hamaiketako osasungarriak egiteko proiektua egin dugu.

Nola egin duzue proiektua?

Galdetegi batzuk pasa genituen. Arrazoiak geneukan, ez zuten

hamaiketako onik jaten. Erantzunetatik informazioa hartu eta lehengo jatekoak osasungarriak izatera pasa ditugu, hamaiketako hobea jateko.

Nola egiten da hori?

Iruzur osasungarri batzuk egin ditugu, esaterako: tortolitak (palomitas), bollinatur

(bollycao), txokopan (palmerak), granjeros (campesinak), txokofruit (fruta), tetos (chetos) edo geninolas (gominolak). Guk egin ditugu, laguntzarekin.

Nola zabalduko duzue proiektua ikastetxean?

Marketinga egin dugu, kartera batzuk. Pentsatzen dute barruan dirua dagoela, baina gure errezetak daude. Ideia da beraiek etxean egitea eta gosari osasungarriekin etortzea ikastetxera.



"Kinto festa aztertu dugu"

AIMAR DBHKO 3KO IKASLEA

Zer proiektu egin duzue?

Kinto ospakizunari buruzkoa, Altsasuko herri ondarea delako. Bilbon kontatuko dugu pertsonek zein diren, bere helburuak, metodologia...

Nola egin duzue?

Galdetegia egin, bidali eta 106 erantzun jaso genituen.

Bizpahiru egun eman genituen emaitzekin. Oso interesgarria da jakitea jendeak festari buruz zer pentsatzen duen.

Zer jaso duzue?

Erantzun oso desberdinak: "oso ongi iruditzen zait" edo "ez, bakarrik soldaduska zegoenean"...

Emakumezkoak festan, zer?

Hori ere aztertu dugu. Oso interesgarria da. Gauza asko ikasi ditugu. Esate baterako, emakumeak noiz hasi ziren dantzatzen, zer egiten zuten kafea hartzean, jendea, opilak, makilak... Oso interesgarria da.

Zer moduz Iruñeko Zientzia Azokan?

Jendeari oso interesgarria iruditu zitzaion, gustatu zitzaion, oso ongi hartu zuten.



Joan zen urtean Retegi Bik eta Bergerak partida irabazi zuten, baina ez txapelketa.

Ikusmin handia XXXI. Irurtzungo Pilota Txapelketako finalerako

PILOTA Lehen mailako finalean Irurtzun klubeko bi bikote lehiatuko dira, gazteak eta beteranoak

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN XXXI. Irurtzungo Pilota Txapelketak baditu finalistak. Ohi bezala, finalak Irurtzungo Trinitate festetan jokatu dira, larunbatean, 17:30ean Biaizpe pilotalekuan. Ikusmina handia da, kalitate handiko pilotariak sailkatu direlako Irurtzun klubak antolatzen duen txapelketako finalera, tartean Irurtzun klubeko pilotariak.

Irurtzun klubeko presidente Miguel Beraza Loidik adierazi duenez, "aurten txapelketa binaka jokatu da, lehen mailan eta bigarren mailan. Guztira 32 bikotek hartu dute parte txapelketan, amateur mailako finenak". Baja eta aldaketa gutxi egon dira, eta bizi-bizi joan da txapelketa. Berazaren iritziz finalistak me-rezita sailkatu dira finalera. "Finalean egotea irabazi dute".

Irurtzun klubeko pilotarien lagunarteko partidak emango dio hasiera finaleko jaialdiari. Olaetxea eta Armendariz Lau eta Erdian lehiatuko dira. Ondoren hasiko dira finalak. Bigarren mailakoan, Mikelarenak (Buru-gain) eta Santestebanek (Obere-na) De la Torre eta Roldan (Lagunak) izango dituzte aurkari. "Esango nuke agian Mikelarena eta Santesteban direla faboritoak, baina ikusiko da".

Irurtzun vs Irurtzun

Lehen mailako finalak interes handia piztu du. Izan ere, Irurtzun klubeko pilotariak lehiatuko dira, Retegi Bi eta Iosu Bergera beteranoak, batetik, eta Aingeru

De la Fuente (Irurtzun) eta Apezetxea (Umore Ona), bestetik. Betteranoak gazteen kontra, beste behin. Izan ere, joan zen urtean ere hala izan zen. Iaz txapelketa klubean arteko txapelketa gisa jokatu zen, eta bi klub finalistak Irurtzun gazteak eta Irurtzun beteranoak izan ziren. Lau eta erdian De la Fuentek 22 eta 16 irabazi zion Ongayri eta binaka Retegi Bik eta Bergerak 22 eta 17 irabazi zieten Olaetxeari eta Lazkozi. Bi partidak kontuan hartuta, tanto baten aldearengatik gailendu ziren gazteak.

Aurten, aldiz, binakako txapelketa izan da. "Retegi Bi-Bergera eta De la Fuente-Apezetxea... ez naiz bustiko, baina ostegunean (atzo) De la Fuentek eta Lozak eta Apezetxeatarrek Mallabiako finalerdia jokatu zuten eta agian esfortzu horrek eragina izan dezake. Ikusiko dugu" dio Berazak. Nolanahi ere, ikuskizun ederra espero da.

Babes gehiago

Miguel Berazak Irurtzungo Udalak eskertu du, klubari ematen dion babesagatik, baina Sakana-ko Mankomunitatetik laguntza gehiago jaso beharko luketela uste du. "Gurean Sakanako pilotari asko hartzen ditugu. Sakanako gainontzeko klubek 15 urtetik gora ez dute jende nahikorik, eta gazte horiek guztiek gurera jotzen dute. Guk ez dugu inolako arazorik, jakina, baina uste dugu Mankomunitatetik ez dugula merezi dugun laguntza jasotzen" adierazi du Berazak.

"Ez nuke txapel hau besteen gainetik jarriko"

JOANES BAKAIKOA SATRUSTEGI PILOTARIA

PILOTA Promesen Buruz Buruko txapelduna da Joanes Bakaikoa, tentsio handiko final gogorrean Iker Salaberriari 22 eta 20 irabazita. Bere laugarren txapela jantzi du

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Joanes Bakaikoa Satrustegi etxarriarrak Promesen mailako bere laugarren txapela preziatua lortu du, Buruz Buruko finalean Iker Salaberriari partida gogor bezain hunkigarrian 22 eta 20 irabazi eta gero. Txapel honi 2018ko Buruz Buruko eta 2018ko eta 2021eko Lau eta erdikoak gehitu behar zaizkie.

Iker Salaberriari irabazteko ederki sufritu behar izan zenuen.

Izugarri. Finala izugarri gogorra izan zen, eta asko eskatu zidan, bai fisikoki eta baita mentalki ere. Lehortuta bukatu nuen. Agian ez nuen beste batzuetan bezain-beste disfrutatu. Sufritzea tokatu zen, baina ongi ateratu zen, eta oso pozik nago.

Zuk esperotako finala izan al zen?

Alde batetik, bai, banekielako oso gogorra izango zela. Salaberri oso pilotari erregularra da, eta banekien ez zuela gaizki jokatu. Nire asmoa zen Altsasuko finalerdian izan nituen sentsazio on horiek edukitzea eta joko aldetik kantxan pixka bat gehiago disfrutatzeko. Ez nuen oso sentsazio onik eduki, baina finala sufritu beharra zegoen, eta nola edo hala lortu nuen.

Salaberriaren estrategia joko azkarraren partida bideratzea izan zen, partida gogortuz gero zuk erresistentzia bikaina duzula jakin badakielako. Baina ongi erantzun zenuen eta, gainera, sakearekin min asko egin zenion.

Buruz buru denetarik izaten da. Partida hasieran pilotari kolpe txar bat eman nion behatzarekin eta jokaldiak egiterako garaian konfiantza galdu nuen. Oinazeak nituen, pixka bat deseroso aritu nintzen. Baina pilota astindu beharra nuen eta gogor egin nion. Berak oso ongi eutsi zuen. Eskerrak sakearekin asmatu nuen!

Bederatzi aldiz berdindu zenuten, parekotasun handiko lehia. Momenturen batean burutik pasatu



Joanes Bakaikoa eta Iker Salaberria, Promesen Buruz Buruko podiumean. BAIKO

"PILOTARI KOLPE TXAR BAT EMAN NION ETA DESEROSO ARITU NINTZEN; HAUSTURA TXIKIA DUT"

zitzaizun partidak ihes egingo zizula?

Buruak lan handia egiten du une horietan. Alde batetik pentsatzen nuen oso zaila zegoela. Tarte batzuetan bera ni baino hobe ikusten nuen. Bestalde, tantoz tanto joatea nahi nuen. Mental-ki oso gogorra izan zen. Buruz burukoan partidatik ez ateratzea oso garrantzitsua da, eta nola edo hala lortu nuen, nahiz eta une batzuetan sentsazioak onak ez izan.

Orain arte jokatuak finalik gogorrena izan zela esan zenuen.

Jokatuak final gogorrena, zailantzarik gabe, bai fisikoki eta baita mentalki ere.

Txapela ospatuko zenuen, ezta? Larunbata izanik eta Iruñean...

Oso nekatua nengoen eta gogo handirik ez zeukan, aitortuko dut. Ohera joateko gogo gehiago nuen (kar, kar...). Baina halako

egunak aprobetxatu behar dira, eta gustura ibili ginen.

Zer moduz duzu behatza?

Ez dago nahi bezala. Plaka egin zidaten: behatz puntan haustura txiki bat egon litekeela esan dit medikuak. Ez da ezer larria, baina nahiko deserosoa da. Larunbatean partida polita neukan, eta medikuak esan dit hobe dela ez jokatzeko. Beraz, orain ongi errekupeatu beharra dut, gero berriro topera aritzeko.

Txapel honek aurrekoek baino zapore bereziagoa al du? Goi-goian jarraitzen duzula erakutsi duzu?

Niri txapel guztiek ilusio handia egin didate. Denek dute bere esanahia eta denek dute lan asko atzean. Ez nuke esango txapel hau besteen gainetik dagoela. Guztiak dira bereziak.

Udako torneoak ate joka daude.

Orain beste aro bat hasten da, udako torneoena. Torneoetan disfrutatu nahi dut, ahalik eta maila onena eman. Sanferminetako da nire torneo kuttuna. Oso berezia da.

2024ko maila nagusiko buruz burukoan toki bat egin duzu.

Ea zer moduz ateratzen den. Pixkanaka hobetzen saiatuko naiz, eta etorriko da etorri beharrekoa.



Ekain Imaz eta Paula Ostiz, txapeldunak.

Ekain Imaz, Nafarroako Erlojupeko txapelduna

TXIRRINDULARITZA Junior mailan Adrian Martinez txapeldunordea da, eta Iker Gomez hirugarren

Maiatzaren 26an Nafarroako Erlojupekoko Txapelketa jokatu zen Obanosen. Junior mailan (14 km) Robert Innovako Iker Villar gailendu zen (18:07), Sakana Group-Aleako Adrian Martinez lakuntzarraren (18:12.36) eta Quesos Albenizko Iker Gomez altsasuarraren (18:12.48) aurretik. Top Tenean, Iker Agudelo (Q. Albeniz) 5. izan zen (18:54).

Kadete mailan (8 km) Quesos Albenizko Ekain Imaz altsasuararak hegan egin zuen (11:21) eta Nafarroako txapelduna da. Top Tenean, Oihan Gorriti (Sakana G.-Alea) 5. izan zen (11:44), Ekaitz Perez (Q. Albeniz) 6. (11:48) eta Luca Martinez (Sakana G.-Alea) 7. (11:58).



Jubenilak, Martinez eta Gomez tartean.

Lagun Artea eta Etxarri Aranatz jaitsi dira

FUTBOLA Preferente mailatik Erregional mailara jaitsi dira bi talde sakandarrak, denboraldian asko sufritu eta gero. Joan zen urtean Preferentera igo zen Altsasuk maila mantendu du. 2023/2024an derbi sakandarrak Erregionalean jokatu dira

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

2022/2023 Preferente Mailako liga bukatu da, albiste tristearekin: Lakuntzako Lagun Arteak eta Etxarri Aranatzek maila galdu dute eta datorren denboraldian Erregional mailan lehiatuko dira. 30 urte Erregional mailan egon ondoren joan zen urtean Preferente Mailara igo zen Altsasuk, aldiz, mailari eutsi dio.

Asteburuan jokaturako Preferenteko 34. jardunaldiak erabaki zuen dena. Altsasuk 1 eta 2 galdu zuen Burladés taldearen kontra eta liga hamabigarren postuan bukatu du (40 puntu). Etxarri Aranatzek Rotxapea izan zuen aurkari; irabaziz gero mailari eusteko aukera zuen Etxarrik, baina Rotxapeak Lehen Maila Autonomikorako igoera fasean sailkatzea zuen jokoan, eta 4 eta 1 irabazi zuen. Etxarri hamaseigarren sailkatu da (32 puntu), salbaziotik puntu bakaarrera, eta mailaz jaitsiko da. Lagun Arteak bazekien ez zuela mailari eusteko aukerarik, baina garaipenarekin esan nahi zion agur Preferenteari. Ezin izan zuen, Aibarések lehen postuak zituelako jokoan eta Oibarakoak 2 eta 4 gailendu zirelako. Hemezortzigarren bukatu du liga, azken postuan (26 puntu).



Lagun Arteak eta Etxarrik elkarrekin jokatzen jarraituko dute, baina Erregional mailan.

Kolpe latza

Ez dira Etxarri Aranatz eta Lagun Artearen garai onenak. Etxarri Aranatz azken urteetan Preferente mailari eusteko borroka gogorrean ibili da ia urtero, baina azken unean mailari eustea lortzen zuten gorriek. Aldiz, aurtan ez da posible izan.

Lagun Artearen ibilbidea, aldiz, gorabeheratsuagoa izan da. Urte gutxitan denetatik bizi izan du talde lakuntzarrak. 2017/2018 denboraldian Preferentetik Erregional mailara jaitsi zen talde zuria, baina hurrengo denboral-

dian, 2018/2019an, atzera ere Preferentera igotzea lortu zuen. 2019/2020 denboraldian, Preferentean bigarren postuan zegoenez eta pandemiagatik liga bertan behera geratu zenez, 2020/2021 denboraldian Lehen Maila Autonomikora igo zen. 2021/2022 denboraldian Lehen Maila Autonomikotik Preferentera jaitsi zen Lagun Arteak, eta jokalar askok taldea utzi zuten. 2022/2023 denboraldian Preferentean hasi ziren lakuntzarrak, eta denboraldi zaila izan da euren dako, talde ia berrira egokitu behar

Areto futbola Ziordian

Ziordia, Aralar Mendi, Sutegi, Goizueta eta Arano areto futbol taldeek parte hartuko dute igandean, ekainak 4, 9:30etik aurrera Ziordiko Running taldeak eta Udalak antolatu duten Rett Syndromearen Aldeko Futbol 7 torneo solidarioan. Zozketak egongo dira.

izan direlako. Gaizki hasi zuten denboraldia, hasieratik jarri zitzairen maldaz gora, eta Erregional mailara jaitsi dira.

Talde txikiak eta handia

Etxarri Aranatz eta Lagun Arteak herri txikiak talde txikiak direla ez da ahaztu behar. Arraroena, agian, orain arte Preferente mailan eta Lehen Maila Autonomikoan egotea izan da, ez horrenbeste Erregional mailara jaitea. Askok ere bitxiagoa zen, Altsasuk duen egiturarekin, horrenbeste urtez Erregional mailan egon izana. Zorionez, Altsasu Preferente mailara igo zen, eta agian Lehen Maila Autonomikora begira jarri behar ko litzateke. Altsasu Kirol Elkartek balorazio ona egin dezake. Preferente mailari tamaina hartu dio, eta Erregional mailako Altsasu B harrobi bikaina da. Altsasuk jubenilek Maila Nazionalari eutsi diote eta gainontzeko taldeak ere txukun ibili dira. Emakumezkoen Preferente mailako Altsasuk mailari eutsi dio, eta nahiz eta Kopan batere fin ez ibili, emakumezkoen futbola gora doa.

Lagun Arteak, jubenilen igoera fasean

Lakuntzako Lagun Arte klubeko talde nagusiak maila galdu duen bitartean, Bigarren Jubenil mailako IV. multzoan jokatzen duen Lagun Arteak bigarren sailkatu da ligan eta Lehen Jubenil mailara igotzeko sailkatu da. Jose Antonio Claverrek entrenatzen duen taldeak denboraldi bikaina egin du. "Taldea oso gaztea da, Sakanako bost herrietako jokalariz

osaturakoa, baina inplikazio handia duena. Ea igoera fasean ongi dabilzan eta Lehen mailara igotzen diren. Zaleen laguntza behar dugu, hurbildu daitezela taldea animatzera" dio Claverrek.

Asteburuan hasiko da igoera fasea. Larunbatean, ekainak 3, Lagun Arteak Berriozar hartuko du ltxesaldian, 11:00etan. Itzulerako partida ekainaren 10ean jokatu da, Berriozarren.



Lagun Arteko jubenil mailako taldea, Zelai Berrin. UTZITAKOA



Aralar Mendi taldekoen poza, Tafallaren kontra denboraldiko lehen garaipena lortu zuenean. ARALAR MENDI

Harro egoteko hamaika arrazoi

ARETO FUTBOLA Uharte Arakilgo Aralar Mendi Hirugarren Mailako Nafarroako Kopako txapeldunordea da, Gazte Berriaken kontra azkenera arte borrokatu eta galdu eta gero. Kopa galtzearen penari, egindako denboraldi bikainaren harrotasuna gailentzen zaio

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Larunbatean areto futboleko Hirugarren mailako Kopako Lauko finala jokatu zen Antsoainen. Finalerdi oso gogorrean Kirol Sporti irabazita sailkatu zen Uharte Arakilgo Aralar Mendi finalera. Gazte Berriaken kontrako finalean bukaeraraino eutsi ondoren, azken bi minutuetan joan zitzaion partida Aralar Mendiri. Kopa ia eskura izateak sortzen duen pena dute oraindik, baina denboraldi bikaina egin dutela jakitun dira.

Hasiera zaila

2022/2023 denboraldia, baina, ez zen oso ongi hasi Aralar Mendirendako. "Aurreko urteko jende askok taldea utzi zuen, eta ez genekien taldea ateratzeko gai izango ote ginen. Baina Ultzamako bi jokalaririk hurbildu zitzaizkigun, haien bitartez bes-

te bi, eta, azkenean izena eman eta lehiari hasi ginen" azaldu du Aralar Mendiko kapitain Mikel Hermoso de Mendoza Sainzek.

Hirugarren maila estatu mailako txapelketa da, maila handikoa. Uharte Arakil bezalako herri txiki batendako bertan lehiatzea, berez, sekulakoa da. "Taldea ia sortu berria zenez, urduri hasi ginen, ez genuelako elkar ezagutzen. Lehenengo bospasei partidak galdu genituen. Tafallan irabazi genuen lehenengo partida, ez dut ahaztuko. Garaipen hori gakoa izan zen, hortik aurrera 27 puntu inguru

"LIGA ETA KOPA OSO GOGORRAK IZAN DIRA. PARTIDAK AZKEN UNEAN ERABAKI DIRA"
MIKEL H. DE MENDOZA

lortu genituelako segidan". Taldeak jardutea behar zuen, errodajea. "Kalitatea bazegoen. Esaterako, Hirugarren mailako ligako eta Kopako pitxitxia, ligan 28 golekin eta kopan 9 golekin, gure taldeko Jon Iribarren Igoa izan da, Suarbekoa (Ultzama). Berak eman zigun partidak lehiatzeko eta irabazteko behar genuen kalitatezko salto txiki hori. Kategoriako jokalaririk onena izango da, ziurrenik". Elkarrekin jokatzea, elkar ezagutzea eta taldea egitea, hori zen behar zutena. "Hirugarren maila oso gogorra da eta ia zerotik hastea ez zen erraza izan, baina talde oso sendoa egitea lortu genuen eta emaitzak iritsi ziren" azaldu du kapitainak.

Liga eta Kopa, oso gogorrak
Hirugarren mailako ligan 22 jardunaldi jokatu ziren eta Cin-

truenigo taldea izan zen liderra (43 puntu). Aralar Mendi zazpi garren sailkatu zen (33 puntu) eta Irurtzango Ibararte Xota zortzigarren (27 puntu). Ondoren, koparen txanda izan zen, bi multzotan banatuta ligaxkan jokatu zena. Aralar Mendi eta Ibararte Xota taldeen multzoan oso estu joan zen txapelketa. "Kopa oso gogorra eta lehiatua izan da, gure multzoan batez ere. Lehenengo partidaren Cintruenigo ligako irabazlea irabazi genuen, Erriberan. Guretako sekulakoa izan zen liderra mendean hartzea. San Juani irabazita 6 punturekin jarri ginen, baina ondoren Ibararte Xotaren kontrako bi partidak, joanekoa eta itzulerakoa, galdu genituen, eta sailkapena parekatu zen. San Juani bere etxean lehenengo irabazi genion, eta guztia ligaxkako azken partidaren erabaki zen: Cintruenigo hartu genuen, eta azken minutuan berdintzea lortu genuenez, bi taldeak sailkatu ginen Lauko Finalerako, beste multzoko Kirol Sport eta Gazte Berriak taldeekin batera".

Ligari eta Kopari jarraiki, Lauko Finalak ere bukaerara arte emozioa izan zuen. Aralar Mendik Kirol Sporten kontra jokatu zuen finalerdia. "Lehenengo minutuan gola sartu ziguten, baina buelta eman genion eta 3 eta 1 jarri ginen aurretik. Orduan euren atezain-jokalaria formula erabili zuten. Bere arriskua du, baina ongi ateratzen zitzaien, hiruna berdindu zutelako. Azkeneko segundoan falta arraro bat seinalatzatu ziguten, eta gure bosgarren falta zenez penalti bikoitza jaurti zuen Gazte Berriakek, zorionez Beñat gure atezainak gelditu zuena. Luzapeneko azken unean Ibaik sartu zuen 4 eta 3koa, oso-oso gogorra izan zen finalerdian".

Azken bi minutuak

Finalerdian Cintruenigori 7 eta 2 irabazi zion Gazte Berriak talde antsoaindarra izan zuen aurkari Aralar Mendik "final oso parekatuan". Partida bukatzeko minutu bat eta 38 segundo

"KOPA HORREN GERTU IZAN DUGU... IA ESKUETAN. ETA PENA HORI DUGU"
MIKEL H. DE MENDOZA

geratzen zirenean baina berdinduta zeuden, baina areto futboleko gauzak azkar batean aldatzen dira. "Gol bat sartu ziguten eta 3 eta 2 jarri ziren aurretik. Gu azken 10 minutuetara fisikoki ukituta iritsi ginen, goizeko finalerdi gogorrarengatik, baina nolabait eutsi genion. Atezain-jokalaririk formula erabili genuen, baina lehenengo balaioa kendu ziguten, laugarren gola sartu ziguten eta hil ala bizi ibili ginen. Gutako bat kanporatu zuten eta jendea jota zegoen. Beraien semifinala ez zen horren gogorra izan, errotazio gehiago egiteko aukera zuten taldekide gehiago zituztelako, eta freskoago zeuden. Gainera, etxean jokatzen zuten, euren jendearen babesarekin, eta horrek beti plus bat ematen dizu, nahiz eta Uharte Arakildik ere jende asko joan zen gu animatzera. Aipatutakoak ez dira aitzakia, beraiek irabaztea merezi zutelako (6 eta 2), baina final oso orekatua zen, edonork irabazi ahal zuena, eta nire iritziz, abantaila txiki horiek garaipena erabaki zuten".

Penaz, baina aurrera begira

Aralar Mendikoek "triste" bukatu zuten. "Uste dut gutako inork ez zuela aurretik final bat jokatu, eta irabazi nahi genuen. Edonork irabazteko gai ginelako erakutsi genuen, eta alde horretatik pena dugu. Uhartetik familia, lagunak, zaleak... etorri ziren eta etengabe animatu gintuzten. Uhartearren babesa beti gertu sentitzen dugu, eta nahiz eta galdu, zoriontzera etorri ziren, final bat ez delako beti jokatzen. Galtzen jakin genuen, baina pena eman zigun, kopa ia eskuetan izan genuelako. Gauean guztiak elkarrekin joan ginen afaltzera, Uharte Arakilen pulpeiroa zegoelako. Egoerari buelta eman genion, eta gustura egon ginen".

Egunak pasa ahala, kopa galtzearen pena arindu eta egindako denboraldi bikainari balioa emango diote uhartearrek, nola hasi ziren eta nola bukatu duten ikusita, denboraldia ona izan delako. Oraindik ez dira hurrengo denboraldiaz aritu, "baina uste dut jarraitzeko moduan egongo garela. Bloke sendoa osatu dugu eta oso ongi bukatu dugu denboraldia. Aurrerago erabakiko dugu". Norbaitek euren jokatu nahi badu, atea "zabal-zabalik" ditu.



Espainiako Txapelketan Nafarroako selekzioarekin lehiatu ziren Bargagaingo taekwondistak, Gerardo Monterorekin. UTZITAKOA

Espainiako Taekwondo Txapelketetatik brontzea iritsi da Sakanara

TAEKWONDOA Irati Irigoienek brontzezko domina lortu zuen 21 urtez azpikoen txapelketan eta Leire Etxanizek brontzea ekarri zuen Eindhovenetik. Estatu eta nazioarte mailako openetan parte hartu ahal izateko instituzioei babes gehiago eskatu die Bargagain klubak

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Sakanako Bargagain Taekwondo eskolan ez da oraindik denboraldia bukatu baina orain arte egindakoaz balorazio ezin hobea egin dute Gerardo Montero Rivera irakasleak eta klubeko presidente Marga Claver Berenguerrek.

Maiatzaren 20an eta 21ean Espainiako 21 urtez azpiko eta kadete mailako Taekwondo Txapelketak jokatu ziren Cartagenan (Murtzia). Nafarroako selekzioarekin 13 taekwondistak hartu zuten parte, horietatik 8 Bargagain klubekoak. 21 urtez azpiko Txapelketan Irati Irigoienek brontzea lortu zuen bere mailan, eta Erkuden Moreno eta Mohamed Essobai final laurdenetarako sailkatu ziren. "Maila oso altua da, eta hirurak oso ongi aritu ziren" azaldu du Monterok. Kadeteetan Zoe Lanz final laur-

denetarako sailkatu zen, Joseba San Miguelek borroka bat irabazi zuen eta final final zortzi- renetara iritsi zen, eta baita Hamsa Essobai ere. Zoe Lanzek eta Hugo Rodriguezek ez zuten lehen erronda gainditu. "Gazteak dira eta esperientzia hartzea zen helburua. Hemen beti epe luze- ri begira egiten dugu lan" gaineratu du irakasleak.

Nazioartean

Martxoan Bargagaingo Leire Etxaniz Claver, Rania Mabchour eta Saray Agudo Eindhovengo Nazioarteko Openean lehiatu

"DOMINA HAU EK EZ DIRA KASUALITATEA, EGINDAKO LANAREN SARIA DIRA"

GERARDO MONTERO

ziren, nazioarteko borrokalariekin. Mabchourrek eta Agudok ez zuten lehen erronda gainditu, baina Etxanizek aurrera egin eta brontzezko domina lortu zuen, meritu handiz.

Aipatu txapelketa Europako Rankingerako puntuagarria da, uda ondoren jokatu diren Europako Taekwondo Txapelketa Juniorrean hautatuak izateko baliagarria, apirilean La Nucia jokatu Espainiako G1 Txapelketarekin eta uztailaren 1ean Zaragozan jokatu den Selekzioen Arteko Junior Txapelketarekin batera. Bargagaingoek badakite Europako Txapelketa Juniorrerako sailkatzea "oso zaila" dutela. "Junior mailako txapelketetan parte hartzen duten lehen urtea da, eta esperientzia asko nabaritzen da. Kategoriari egokitzea eta esperientzia lortzea da helburua,

junior mailako 2. eta 3. urteetan denboraldi ona egiteari begira. Eindhovenen Sofia García madrildarra bigarren sailkatu zen eta aurretik G1 Txapelketa irabazi zuen. Beraz, gure taekwondistak sailkatzea zaila da. Europako Txapelketetan lehiatu ahal izateko asko borrokatu beharra dago, eta horretan gauden" azaldu du Monterok.

Puntako taekwondistak

Bargagainen "oso kontentu" daude taldeko taekwondistek duten kirol mailagatik, lortutako dominengatik eta harrobia ere indartsu datorrelako. "Pozgarriena da gure taekwondistek jarraikortasuna dutela. Irati Irigoienek, Erkuden Morenok, Rania Mabchourrek eta Leire Etxanizek, esaterako, dominak errepikatu dituzte. Aurreko kategorietan dominak lortu zituzten, eta kategoria berrietan ere progresioa dute eta domina berriak irabazten ari dira. Kat-egoria berrietara igarotzerakoan lehiaketetako kirol maila hori mantentzea ez da batere erraza, eta eurek hobetu dute. Ez da kasualitatea. Domina horiek egindako lanaren saria dira" poztzen da Montero.

Irati Irigoienek Espainiako Txapelketetan lau domina ditu, 21 urtez azpiko mailako hiru eta junior mailako beste bat. "Esango nuke, egungo lehiaketetan aktibo dagoen taekwondisten artean Espainiako Txapelketetan domina gehien dituen borrokalaria dela". Erkuden Morenok kadete mailan, junior mailan eta 21 urtez azpikoan brontzea du, eta Leirek kadete mailan zilarrezko bat eta brontzea ditu.

Baliabide gehiagoren beharra

Nahiz eta Bargagaingo taekwondistak txapeldun handiak izan, klub txikia da Bargagain. Klub gisa estatuko edo nazioarteko open edo txapelketetan parte hartzeko egin behar duten ahal-egin ekonomikoa oso handia da, klubak edo familiek bere gain hartzen dutena.

"Adibidez, Leire Etxanizek Eindhovenen Sofia García izan

"AUERRERA EGIN DEZATEN, BALIABIDE EKONOMIKO GEHIAGO BEHAR DIRA"
MARGA CLAVER

Bargagain, klub onena

Maiatzaren 13an Nafarroako Taekwondo Federazioak urteko gala ospatu zuen Baluartan. Bargagain klubak 2022ko Nafarroako Taekwondo klub onenaren saria jaso zuen, 2017tik jarraian jasotzen duen saria. "Guretako sekulako aitortza da", Marga Claverren esanetan. Erkuden Morenok emakumezkoen konbateko taekwondolari onenaren saria jaso zuen, eta Leire Etxanizek eta Rania Mabchourrek 2022an kadete zirela Espainiako Txapelketetan brontzezko domina lortzeagatik aitortza.

zuen aurkari. García madrildarra da, Hankuk International School taldekoa, Tokioko Joko Olinpikoetan domina lortu zuen Adriana Cerezoren klub berekoa. Klub hau izugarri mugitzen da eta nazioarteko txapelketa askotan lehiatzen da. Gaztela Manchán federatuta dago eta instituzioen babes handia du, eta nabaritzen da, asko ateratzen direlako eta horri esker nazioarte mailan esperientzia handia dutelako. Eindhovengo finalerdietako konbatea bere kontra galdu zuen Leirek, eta nahiz eta lehia estua eta borrokatua izan, azkenean esperientzia hori nabaritzen da" dio irakasleak.

Horregatik, kirolari hauei aukera gehiago eskaini ahal izateko babes gehiago eskatzen die instituzioei, "estatu mailan edo nazioarte mailan lehiatu ahal izateko baliabideak behar direlako". Nafarroako edo Espainiako selekzioarekin estatuko edo nazioarteko txapelketetan aritzen diren taekwondisten aurrekontua federazioak hartzen du bere gain. Hau da, Espainiako Txapelketan parte hartzen duen teknifikazio taldearen ardura du federazioak. Irati Irigoien eta Erkuden Moreno, esaterako, Indurain Fundazioko bekaadunak dira, errendimendu altuko kirolariak, eta bekei esker irakas- kuntzan eta egoitzetan laguntzak dituzte". Nazioarteko open eta bestelako txapelketetan, ordea, klubek hartzen dute parte, bere

kontu. "Arazoa bidaien eta ego-naldien gastua da. Kanpora lehiatzera ateratzea dirutza da, baina horrek ematen die espe-rientzia eta proba garrantzitsue-tan parte hartu ahal izateko beharrezkoa den puntuazioa" nabarmendu du Claverrek.

Altsasuko udalari eskaera

Bargagain klubak babes gehia-go eskatu dio Altsasuko Udalari. "Kirol eskolen bidez udalak haur guztiek oinarritzko kirole-ra sarbidea izan dezaten bermatzen du. Hori oso ongi dago. Baina maila ertain eta altuan lehiatzen ari diren kirolari hauendako laguntza bat da fal-tan botatzen duguna, estatu mailako probetan, eta kanpoko probaren batean lehiatzeko au-dera izan dezaten. Kirolari hauek dominak lortzen badituzte, bes-telako diru laguntzetara sarbidea izango dute, goi mailako kirolari-en beketara edo unibertsitate eta erresidentzia laguntzetara, esaterako. Eta hori oso garrantzitsua da" dio Gerardo Monterok.

Bargagainek goi mailan dituen taekwondista gehienak emakumezkoak dira. "Berdintasuna sustatzeaz horrenbeste hitz egiten ari den honetan, taekwondista hauek kirol minoritarioetan da-biltzan goi errendimenduzko emakumeen erakusle dira. Berdintasuneko politiken inguruko formazioa eta bestelakoak iristen zaizkigu, baina emakume hauek bere kirolean aurrera egin deza-ten, baliabide ekonomikoak behar dira" Marga Claverren irudikoz. Beraz, "kirol eskolez gain, baliabide ekonomiko gehiago da eskatzen duguna, 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxo hauengan inbertsioa eginez, bere etorkizunerako garrantzitsuak izan daitez-keen bekak eta bestelakoak lor daitezkeelako. Eta hori garrantzitsua da, baliabide asko ez di-tuzten familiendako, are gehiago".



Erkuden, Leire, Irati eta Rania. BARGAGAIN

Dantzalekukoak, taldekakoan onenak

ATLETISMOA Dantzaleku Sakana klubeko 10 urtez azpiko gizonezkoen taldeak Nafarroako Kirol Jokoen taldekako txapelketa irabazi du. Bihar, larunbata, Sakana Atletismo Eguna antolatu dute Dantzalekun, eskolako atletismo modalitateak ezagutarazteko

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Maiatzaren 21ean Nafarroako Kirol Jokoen Atletismo Txapelketako 12 urtez azpiko eta 10 urtez azpiko taldekako txapelketa jokatu zen Burlatan. Bertan Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolako neska-mutilek hartu zuten parte, Fermin Azkargorta eskolako koordinatzaile eta en-trenatzailea alboan zutela.

Korrikalari sakandarrak oso ongi aritu ziren. Atletismo modalitate ezberdinetan hartu zuten parte. 10 urtez azpikoak 50 m lasterketa, 500 m lasterketa, 4x50 m erreleboak, altuera jauzia, luzera jauzia, pisu jaurtiketa eta pilota izan zituzten. Eta 12 urtez azpikoek distantzia handiagoa. Dominarekin itzuli ziren sakandarrak. 10 urtez azpiko gizonezkoen mailan Dantzaleku Sakanako taldea izan baitzen Nafarroako txapelduna. 10 urtez azpiko emakumezkoak ere oso ongi ibili ziren eta podiumera igotzear egon ziren, laugarrenak izan baitziren. Eta 12 urtez azpikoan ere txukun ibili ziren sakandarrak. Giro paregabea egon zen Burlatan.

Dantzaleku, martxa onean

Aurten 70 haur eta gaztetxo ari dira Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolan trebatzen, kopu-



Dantzaleku atletismo klubeko 10 urtez azpiko gizonezkoak, txapeldunak. UTZITAKOA

ru handia. Fermin Azkargorta da Dantzaleku Atletismo Eskolako koordinatzailea eta monitorea, Aitor Mendozarekin eta Ekhi Olabiderekin batera. Hiru diziplinak lantzen dituzte: jaurtiketak (diskoa, xabalina, pisua, vortex...), pista (harresi lasterketa, luzera saltoa, erreleboak, serieak...) eta krosa.

Sakana Atletismo Eguna, bihar

Ekainaren 3an, larunbata, Sakana Atletismo eguna antolatu dute Dantzaleku Atletismo Klubak eta Sakana Triatloi taldeak

10:00etatik 13:00etara, Dantzalekun. Hamazazpi urte bitarteko neska-mutilek atletismoaren modalitate ezberdinak ezagutze-ko eta praktikatzeko aukera izango dute: krosa, luzera jauziak, jaurtiketak, pista lasterketak, erreleboak, harresi lasterketak... Dantzaleku eskolakoek ikasturte bukaerako festa gisa biziko dute eguna, eta beste haur asko atletismo eskola ezagutzera hurbilduko dira, datorren ikasturtean izena ematea edo ez erabakitze-ko. Joan zen urtean 180 gaztetxok hartu zuten parte.



2022ko Lakuntza-Aralarko helmuga.

MENDIA / BTT Lakuntza-Aralar eta Altsasu BTT, azken egunak

Ekainaren 11n bi proba ezagun jokatu dira Sakanan. Batetik, Lakuntza-Aralar mendi lasterketa, Zabalarte klubak antolatutakoa, eta, bestetik, 26. Altsasuko BTT Zeharkaldia, Barranka Txirrindularitza Taldeak antolatuta. Batean zein bestean, izena ematea zabalik dago ekainaren 9ra arte, Herrikrosa.eus eta Rockthesport webguneetan, urrenez urren.

Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketa bi distantzian jokatu da: Luzea (26 km) eta Laburra (13 km). Horretaz gain, martxa ez lehiakorra antolatu da. Altsasu BTT Zeharkaldian bi ibilbide daude: Luzea (52 km) eta laburragoa, tontor handietara igotzen ez dena.

Aitzkibil, larunbatean

Ekainaren 3an jokatu da Aitzkozar herri krosaren tokia hartu duen Aitzkibil lasterketa, Urdiainen. 17:00etan haurren lasterketak izango dira eta 18:30ean helduena. Izena ematea egunean bertan egin daiteke.

74 bikote binaka korrika

ATLETISMOA Andra Mari ikastolak antolatuta, VIII. Binakako Lasterketa- Naparrellet Saria jokatu zen Etxarri Aranatzan. Guztira 74 bikote hartu zuten parte, giro ederrean. Txikienek moto lasterketa izan zuten, eta berrikuntza gisa, lasterketa inklusiboa antolatu zuten. Batek begiak itxita egin zuen korrika, bikoteak gidatzen zuen bitartean.



ANDRA MARI IKASTOLA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 2

ALTSASU Gazte agenda.

World music edo munduko musikak ekimena.

18:00etan, *Intxostiapunta gazte gunean.*

ALTSASU Dantza emanaldia.

Ekialdeko haizeak Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako gazte eta helduen dantza taldeen emanaldia.

19:30ean, *lortia kultur gunean.*

ALTSASU Hitzaldia.

Donejakue bidea Sakanan Nicolás Arbizuren hitzaldia, Donejakue bidearen ondareari buruz. Sakana Garapen Agentziak antolatuta.

19:30ean, *Gure Etxean.*

OLAZTI Kontzertua.

Poxpol Olaztiko taldearen mustutze eta Muga Zero lakuntzako taldearen kontzertua.

23:00etan, *Clinker tabernan.*

LARUNBATA 3

BAKAIKU Oinezko martxa.

Sakanako Santiago bidea ezagutzeko oinezko martxa, Bakaikutik Ziordiraino. Tartean argazki rallya egingen da. Sakana Garapen Agentziak antolatuta.

08:30ean, *Santiago ermita.*

ALTSASU Atletismo eguna.

II. Sakana Atletismo eguna, Dantzaleku Sakana eta Sakanako Triatloi taldeek antolatuta. 17 urte bitarteko haur eta gazteendako.

10:00etatik 13:00etara, *Dantzalekun.*

ZIORDIA Iñigo Aritza Ikastolako eguna.

11:30 Jolasak eta herri kirolak.
13:00 Buruhandien mustutzea.
14:30 Bazkaria.

16:30 Ipuin kontalaria.

16:30 Endara deejays.

LAKUNTZA Kintadak.

13:00 Auzatea.

13:30 Photocall, Pikotan.

19:00 DJ Inaxio, plazan.

20:00 Auzatea eta photocall, Pikotan.

20:30 Sorpresa.

21:00 Zezensuzkoa.

UNANU Tailerrak.

Ergoiena Bizirik egitasmoak antolatutako robotika eta sormen tailerrak.

17:00etan eta 18:15ean, *Aula sozialean.*

URDIAIN Lasterketa.

XVII. Aitzkibel Elkartasun Krosa. Bi ibilbide: 7,6 km edo 4,3 km.

Haurrak, 17:00etan; helduak, 18:30ean; *plazatik.*

ALTSASU Gazte agenda.

Denboraldiaren itxiera festa.

22:00etatik 01:00etara, *Intxostiapunta gazte gunean.*

ALTSASU Kontzertua.

Trío Medianoche eta Trasteando taldeen kontzertua.

19:30ean, *lortia kultur gunean.*

IGANDEA 4

ETXARRI ARANATZ Mendi irteera.

Finalista Eguna: Auntzetxera ibilaldia.

09:00etan, *plazan.*

ZIORDIA Futbito txapelketa.

Ziordiko Rett sindromearen aldeko elkartasun futbol 7 txapelketa: Ziordia, Aralar-Mendi, Sutegi eta Goizueta eta Arana futbol taldeen arteko partidak. Ziordia Runnig taldeak, Ziordiko Udalak eta Rett

ZINEMA

ALTSASU

ORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Las buenas compañías gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Igandea 4 19:30

Mi crimen gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 8 19:00

sindromearen aldeko bi elkartek antolatuta.

09:30ean, *futbol zelaian.*

ETXARRI ARANATZ Dantzari Txiki Eguna.

Etorkizuna dantza taldeak antolatuta.

10:00 Elkarretaratzea: dantzari guztiak elkartuko dira, plazan.

10:30 Kalejira, herritik zehar.

13:30 Dantza emanaldia: dantzari guztiak *Agurra* eta *Txunlailai* dantzatuko dute, plazan.

ASTELEHENA 5

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.

12:00etan, *Zumalakarregi plazan.*

OSTIRALA 9

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

Xabier Irujo historialariaren *Gamazada* hitzaldia, Altza Burua! Sakanako euskaltzaileen sareak antolatuta.

19:30ean, *kultur etxean.*

ALTSASU Dantza emanaldia.

Euskal Herriari bira Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako haurren dantza taldeen emanaldia.

19:30ean, *lortia kultur gunean.*



ARTXIBOA


IRURTZUN Irurtzango pintura tailerreko *Pinturaren bidez bizitza* gozatzen erakusketa.

Ekainaren 11ra arte. *Pikuxar eta Tahonan.*



LAKUNTZA Artea Oinez erakusketa.

Ekainaren 4ra arte (ekainaren 3an itxita egonen da). Astegunez 17:30etik 20:00etara, eta larunbatetan eta igandetan 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara. *Kultur etxean.*



ARTXIBOA

ALTSASU Itziar Nazabal arte tailerraren ikasleen lanen erakusketa.

Ekainaren 25era arte. *lortia kultur gunean.*



Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatutako bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta *officea* ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINTZA

Lakuntzako Udalak udarako begiraleak behar ditu: Haurrei zuzendutako Udan Euskaraz ekainaren 26tik uztailaren 28ra izango da eta bertan lan egiteko begiraleak kontratatu nahi ditu Udalak. EGA edo balioakidea izatea beharrezkoa da, eskabideekin batera curriculuma eta jolas gunean egiteko ekintzen proposamena aurkeztu behar da ekainaren 14a izango da azken eguna. Informazio gehiago Lakuntzako Udalean edo www.lakuntza.eus web orrian.

Irurtzango Pikuxar tabernan zerbitzari eta sukaldari lan poltsa: Asteburuetan eta udan lan egiteko gehien bat. Espereintzia baloratzen da eta euskara ezinbestekoa da. Curriculumak jasotzen ditugu tabernan utziz edo pikutaberna@gmail.com helbide elektronikora bidalita.

Etxarri Aranazko Udalak zerbitzu anitzetako lanpostu bat oposizio lehiaketa egingo du: D mai-lako lanpostua izango da, mantentze lanak eta zerregin orokorrak betetzeko eta aldi baterako kontratua egingo zaio. Hori bai izengaien zerrenda osatuko da ere. Baldintzetako bat euskara jakitea da, beste baldintzak eta informazio gehiago jasotzeko Udaletxean edo www.etxarriaranatz.eus web orrian. Izena emateko epea garariraren 8a.

LEHIAKETA

Olazitiko Santa Ana festak iragartzeko kartel lehiaketa: Lanak erregistro elektronikoki bidez edo udaletxean aurkez daitezke ekainaren 21eko 14:00ak baino lehen. Sariak egonen dira, oinarriak eta informazio gehiago Olazitiko Udalean edo

www.olazti.eus web orrian.

Altsasuko festetako kartel lehiaketa 2023: Festetako programan azala (helduen modalitateko irabazlearena) eta kontrazala (haurren modalitateko irabazlearena) aukeratu dira. Lanak ekainaren 16ko 14:00ak baino lehen lortia Kultur Gunean aurkeztu behar dira. Oinarriak eta informazio gehiago www.altsasu.net eta lortia Kultur Gunean.

OHARRA

Etxarri Aranazko igerilekuak zabalik: 10:00etatik 20:00etara zabalik egonen dira. Jubilatuek NANA aurkeztu beharko dute sarrera dohainik izateko. Txartelak eta ordainketa kanpiniko web orriaren bidez bideratuko dira www.campingetxarri.com.

Lakuntzako Udan Euskaraz izena emateko epea zabalik: Ekainaren 26tik uztailaren 28ra burutuko da goizeko 9:30tik 13:30ra. Izena ematea www.lakuntza.eus web orriko galdetegia betez egin behar da, epea ekainaren 14an amaitzen da.

Altsasuko Udalak udarako eskaintzan eta datorren ikasturterako kirol eskoletan izen ematea zabaldu du: Uztaila eta abuztuan haurrendako Aisiz Blai eskaintza dago eta gazteen-dako Gu Geu Gazte eskaintzak. Datorren ikasturterako eskola kirolen eskaintza zabala publikatu da ere. Informazio gehiago eta izen emateak www.altsasu.net web orrian edo 012 telefonora deituz. Izena emateko epea garagariraren 7an amaitzen da.

Lakuntzako musika eskolan izena emateko epea zabalik: Deialdiari buruzko informazio guztia www.lakuntza.eus web orrian dago eta izena emateko epea garagariraren 25ean amaitzen da.

Lakuntzan egur epaitzak eskatzeko epea zabalik: Aurten Uskain dermiotik aterako dira. Epaitza bakoitzak 50 euro balio du, eskaerak egiteko 948 576 015 telefonora deitu behar da edo info@lakuntza.eus emailera idatzi. Eskaera egite-

ko epea ekainaren 9ko 14:00etan amaitzen da.

Aralar aingeruari haurrak aurkeztea: Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatu du. 18. edizioa uztailaren 23an izanen da. Aldez aurretik izena ematen dutenek elizkizunaren ondoren umeen izen-abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminoa jasoko dute. Horretarako, santutegi sakristian edo dendan eman behar da izena.

Lakuntzako entitateendako Udalen dirulaguntza deialdia zabalik: Laguntzak eskuratzeko baldintzak dira jarduerak herritar guztiendako zabalik egotea, hezkuntza-aren edota gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea, herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen libre eta garapen pertsonala sustatzea eta udalaren beste laguntza-lerro batean sarturik ez egotea. Deialdiaren oinarriak eta dokumentazioarekin batera aurkeztu beharreko eskabide ereduak www.lakuntza.eus webgunean dago. Eskaerak garagariraren 16ra arte aurkez daitezke.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak WhatsApp aplikazio-ko zabalpen-zerrenda bat sortuko du. Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu WhatsApp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

Herri Urratsekin elkartasun uholdean diru ekarpenak egiteko: Herri Urratsa joatea ezinezkoa egin bazitzaizun eta sostengua erakusteko aukera hauek dituzu; www.herriurrats.eus web orrian sartuta eta materiala erosiz. Bizum bidez Dohaintzak egiteko atalera sartuz (herri urrats aurkitu eta dirua bidaliz) edo honako kontu korronte hauetan dirua sartuta: ES87 3035 0059 8205 9073 1197, ES98 2095 5045 8710 6117 7332.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Beñat Lertxundi Larrañaga**, maiatzaren 21ean Lakuntzan
- **Sofia Lahera Losada**, maiatzaren 21ean Altsasun
- **Iara Gutierrez Gaya**, maiatzaren 25ean Etxarri Aranatzen
- **Lea Carrillo Alvarez**, maiatzaren 26an Irurtzunen
- **Laia Andueza Markotegi**, maiatzaren 27an Uharte Arakilen

EZKONTZAK

- **Jon Barbarin Lisarri eta Maria Izaskun Mugika Mugika**, maiatzaren 31n Ihabarren

HERIOTZAK

- **Fermin Malo Cambra**, maiatzaren 24an Altsasun
- **Teresa Tellechea Gastearena**, maiatzaren 28an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

OROIGARRIA



Yasone Ortega Delgado

IV.urteurrena

Etxekoek; Mikel senarrak, Dulantzi eta Johanek, Eguzki seme-alabek, Alai ilobak, Amaia ahizpak eta Pakok ez zaitugu ahazten

Lakuntza

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
 HELEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
 Gure lurra, gure jendea, gure sustraia

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6	ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2
--------------------------	-------------------------------

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
 tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
 @Grupolrache
 Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Poxpol taldeko bi kide Maisuenea Gaztetxean emandako kontzertuan. UTZITAKOA

Musika egiteko elkartzen diren Olaztiko hiru lagun

Maiatzaren 20an Maisuenea Gaztetxearen urteurrena ospatu zuten eta ospakizunean sorpresa bat egon zen: Poxpol taldearen lehenengo kontzertua. Gaur, ekainak 2, ostirala, taldearen mustutze ofiziala egingen dute

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

Red Hot Chili Peppers, Nirvana eta abarren abestien bertsioak egiteko elkartzen hasi ziren duela zortzi bat urte Olaztiko hiru lagun; Unai Ruiz bateria jolea, Julen Bujanda baxu jolea eta ahotza eta Kepa Galbete gitarra jolea eta ahotza. "Hasieran talde klasikoaren bertsioak egiten genituen, eta asko inprobisatu ere bai". Pixkanaka punk estilora salto egin zuten, "eta nahiko gorabeherekin", gaur egun arte iritsi dira. Poxpol taldea sortu dute. Gaur, ekainak 2, ostirala, 23:00etan, Clinker tabernaren terrazan kontzertua emanen dute; ohol-tzakide Muga Zero talde lagun-tzarra izanen dute.

"Lehen kontzertua Olaztiko Gaztetxearen urteurrenean egin genuen. Sorpresa izan zen. Azkenean, lokala gaztetxean daukagu, hor sortu ginen, eta opari bezala hor jo genuen; lagunaren artean". Gaurko kontzerturako "nerbioak kentzeko" baliagarria

izan zen maiatzaren 20an eman zuten lehenengo kontzertu hura. "Lehenengo-lehenengoa ez izateko".

Mustutzea

Ongi pasatzeko eta "guretako" elkartzen dira eta jotzen dute. "Clinkerren jotzea proposatu ziguten eta animatu ginen, eta orain serioago-edo hartu dugu". Hala ere, ez dute "gustuko" epe luzerako pentsatzea, "baina bai aurrera begira bost abesti grabatzea pentsatuta dugula, epe laburragoan". Poxpol taldeko kideak lehenengo aldiz Maisuenearen urteurrenean igo ziren eszenatokira, aurretik ez dira beste talderen batean egon, baina "babestuta" sentitu dira.

"TALDE KLASIKOEN BERTSIOAK EGITEKO ELKARTZEN GINEN; INPROBISATZEN GENUEN ERE"

"Eskaini genuen kontzertuan jendea topera zegoen, eta eskertzekoa da".

Zazpi abesti propio dituzte, eta kontzertuetan "hiru edo lau" bertsio ere jotzen dituzte. Kanteak, "batez ere", arazo sozialei buruz hitz egiten dute: "Badaukagu abesti bat hiriak jasaten ari diren gentrifikazioaz eta turistifikazioaz hitz egiten duena, beste bat harakintza industriari buruzkoa eta beste bat herriari zuzendutako maitasun-gorroto gutun bat dena".

Zuzenak

"Etiketak jartzea zaila egiten zaigu; punk iluna eta post punk ere antzematen dela esan digute". Influentziak stoner eta hard rock-ean duten, "asko entzuten dugu", eta haien musika "hor tartean egon daiteke".

Clinkerren emanen duten kontzertua "azkarra eta zuzena" izanen dela esan dute musikariek, haien abestiak "zuzenak" direlako ere.



BAZTERRETIK

JUANKARLOPEZ-MUGARTZA

Memoria ahula da besteen mina gogoratzeko

Ondokoen zorigaitzak berehalaxe ahanzten zaizkigu. Emango luke gure burmuina ez dela gauza inguruan gertatzen diren ezbeharretatik ikasteko eta, denbora jakin bat iragan delarik, horiek gogoratzeko. Gure minak, ordea, ez gaitu inoiz ere bakarrik uzten, baina guk besteen penekin egiten dugun bezala, besteek ere gauza bera egiten dute gurekin... ahaztu.

Hain garrantzitsuak eta ezinbestekoak izan zirenak garai batean, laguntzarik handiena eman zigutenak, denborarekin lausotzen eta ezabatzen hasten dira gure burmuinetatik, eta garahul bat balira bezala, hasten dira itzaltzen eta itzaltzen, argi txiki-txiki dardarti bat gelditu arte... eta hori ere haize bolada txar batek erabat itotzen duenean, emango luke inoiz ere ez dela pizturik egon, inoiz ere ez dela gure ondoan izan. Haien esanak eta haien eginak iraganeko kontu zaharrak direla sinestarazi nahiko digute, inoiz ere existitu izan ez balira bezala.

Ez dezagun gure memoria gal!!!

Lapurdiko Senpere herrian toki bat hartu dute Euskal Herriko historiari eta

memoriari eskaintzeko. Anai Arteak elkartekoek oroitarri bat ezarri dute Helbarrun auzoan, Azkainerako bideberri zaharrean, irteerarik gabeko bideitsu batean, inoiz ere ahantz ez dezagun zein izan den gure iragan hurbila, zein izan den ukatu diguten historia, zein gure historia guk kontatu gabea, ikusezina. Historia irabazleek idazten dute eta aldatu eta desitxuratzen dute haien nahierara.

Azken hauteskundeen ondorioz, uharte isolatu batean bezala gelditu gara, itsaso urdinez inguratuta, ertz guztietatik olatuen mehatxuaren menpe. Garai txarrak datoz, noizbait onak egon badira, eta guk batela hartuta ikasi behar dugu nabigatzen, gure memoriari irmoki eutsiz.

Senpereko memorialak gure iraganaren lekukotasuna ematen du, isilarazitako historia batena. Iragan egunak ohora ditzagun joan zirenen oroimenez. Haiek historia egin zuten, eta guk, gure historia kontatzea oraindik ere debekatuta dugula dirudien arren, historia hori idatzi behar dugu. Izan ere, guri dagokigu, ez olatu urdinei.



Dantzari txikien topaketa

Etorkizuna dantza taldeak Altsasuko Dantzari Txiki Eguna ospatu zuen maiatzaren 28an, igandean. Herriko dantza taldearekin batera Lakuntzako Elai Alai eta Ibarra Alur dantza taldeak aritu ziren. Bitartean, gazte eta helduen taldeak Beasaingo Ostadar dantza taldeak antolatutako Beasaingo XXI. Dantza Topaketan parte hartu zuten.



Josu Reparaz NIEko presidentea eta Arte Oinezen komisarioa mustutzean azalpenak ematen. UTZITAKOA

Bertako artisten handitasuna

Sakanako hainbat artisten lanek osatzen dute Nafarroa Oinezen harira antolatutako Lakuntzako 'Artea Oinez' erakusketa. Iruñean astez egon ondoren, maiatzaren 26an mustu zuten eta igandera arte egonen da ikusgai kultur etxean

LAKUNTZA

Artea Oinez erakusketa mustu zuten maiatzaren 26an, ostiralean, Lakuntzako kultur etxean. Erakusketa gaur, ekainak 2, ostirala, 17:30etik 20:00etara, eta etzi, ekainak 4, igandea, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara, bisita daiteke. *Artea Oinez* Nafarroa Oinezen barruan dagoen egitasmoa da, eta Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolari dagokio haren antolaketa. Erakusketaren 26. edizioa izan da aurtengoa. Ikastolak Asun Goikoetxea artista bakaikuarra omendu du *Artea Oinez* erakusketarekin, "arteari eta kultura garaikideari, euskarari eta ikastolekin beti izan duen lankidetzaz eskuzabalari egindako ekarpenagatik".

Sakanan aurkeztu aurretik, *Artea Oinez* erakusketa Iruñeko Kondestable jauregian astetan egon da ikusgai. Nafarroa Oinez

laguntzeko asmoarekin, 83 artistak haien obrak utzi dituzte; guztira, 103 lanek osatu dute *Artea Oinez*. Sakanako erakusketa ibarreko artisten lanei egin zaie lekua: margolanak, bideoak, grabatu eta inprimatze digitalak, argazkiak eta collageak eta eskulturak ikus daitezke. Sakanako artistei dago kienez, pinturak dira gehienak eta eskulturetan altzairu galbanizatu eta brontzezko piezak ere badaude. Gorka Flores urdindarraren lanak ere zura duela gaineratu dute *Arte Oinez*etik.

Ostiraleko mustutze ekitaldian Izaskun Errazkin Beltza Andra

ARTISTEK FEMINISMOA, NATURA ETA ABAR BEZALAKO KONTZEPTUAK LANDU DITUZTE

zuen. Hortaz, larunbatean hurrendako arte tailerra egin zuten *Artea Oinez* erakusketaren harira, Lakuntzako kultur etxean. Mustutzean ere Josu Reparaz Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendariak eta erakusketaren komisarioak hartu zuen hitza, eta *Artea Oinez* erakusketaren bisita gidatua egin zuen. Ekitaldiarekin amaitzeko Nafarroa Oinez 2023ko arduradunek otamen bat eskaini zuten.

Artea Oinez "erraldoiaren" zati bat Lakuntzara ekarri dutela azaldu zuen Reparazek: "Sakanako hainbat herritako artisten lanak. Txikia izan arren biltzen ditu herri hauetako artisten handitasuna. Sakanako artisten presentzia garrantzitsua delako Nafarroan, baita kanpoan ere". Artista hauetako bakoitzak "bizitza eta mundua" interpretatzeko modua duela esan zuen

erakusketaren komisarioak. Txuspo Poyo altsasuarra, Itziar Nazabal altsasuarra, Itziar Okariz ama etxarriarra duen eta haurtzaroa herrian pasa zuen artista, Gorka Flores urdindarra eta aita lakuntzarra duen, Maider Perkaz ziordiarra, Miren Ustarroz uharte arakildarra, Dora Salazar altsasuarra, Mikel Okiñena irurtzundarra, Argiñe Berastegi arbizuarra, Sagri Mauleon etxarriarra, Elena Santano altsasuarra, Jose Ramon Anda bakaikuarra eta aurtengo omendua Asun Goikoetxea bakaikuarra artisten lanak ikus daitezke Lakuntzako *Artea Oinez*en.

Artelanak

Arte garaikidearen "erakusgarri" den zati bat osatzen du erakusketa: "Bideo sorkuntza, marrazkia, inprimatze digitalak, eskulturak, margoak teknika desberdinetan biltzen ditu, eta edukia dagokionez, ikastoletan hain esanguratsuak diren elementuak ikus daitezke", azaldu zuen Reparazek. Feminismoa, natura, jasagarritasuna eta kooperatibismoa bezalako kontzeptuak landu dituzte artistek: "Pertsonen arteko berdintasuna oso presente dago hainbat lanetan, behin eta berriz lantzen den gai bat da. Obra gehienek naturarekin harremana dute, eta lotura dute ikastoletan lantzen den jasagarritasunarekin eta bizi dugun ingurua zaintzearekin". Bideo baten bidez, inurritegi bat azaltzen da, "zer garrantzitsua den gure ikastoletan kooperatibismoa, eta pertsona erdian jartzen dugula: inurri bakoitzak bere lana egiten duen bezala, guk ere bakoitzak gure lana egiten dugu komunitate handi eta emankorra osatuz".



'Artea Oinez' erakusketaren mustutze ekitaldia.

"Ikasleak lasaitzeko eta animatzeko egoten gara"

Ekainaren 6an, 7an eta 8an Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioaren (USEa) izanen da Nafarroan, eta Patxi Satrustegi Ganboa Arbizon bizi den Altsasu Institutuko orientatzailea ikastetxetik aurkeztuko diren 61 ikasleen laguntzailea izanen da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Altsasuko BHIko orientatzailea zara.

Urte luzez, 1999-2000 ikastur-etik.

2 Zein da orientatzailearen pape- ra?

Aniztasunaren trataeran aritzen gara; ikasleei ebaluazio psi-ko-pedagogikoa egiten, gelen jarraipena egiten, aholkua ematen eta heziketa premia bereziak dituzten ikasleekin egokitzape-na bideratzen. Tutoretza lan handia egiten dugu ere; tutoreei tresnak eta baliabideak ematen dizkiegu. Bizikidetzan oso sar-tuta egoten gara, eta batzorde-ko partaide eta buru izaten gara; harremanetan egon daitezkeen gatazketan egoten gara. Ikas orientazioa egiten dugu ere, batez ere DBH 3. eta 4. mailan eta batxilergoan.

3 Aurten USEa egitera joaten di- renen laguntzailea izanen zara. Zergatik?

Ez aurten bakarrik. Hau laugarren edo bosgarren urtea da. Norbait arduradun bezala joan behar da, jarraipena egitera eta ikasleekin egotera, laguntzera. Normalean tutoreak edo nahi duen irakaslea izaten da. Duela lau edo bost urte inor ez zegoela gertatu zen, eta izena eman nuen.

4 Eta jarraitu duzu.

Berez tutoreak joatea egokiena da, beraiek ikasleak gehien ezagutzen dituztenak baitira. Baina egia da tutore guztiak ez direla joaten, bi edo hiru talde joaten badira, tutore bakarra egoten da. Nik ez ditut hainbeste ezagutzen. Baina tutorea ez bada joaten, ez da hain garrantzitsua ikasketetan laguntzearen figura, ikasketak dagoeneko prest dituztelako, eta batez ere lasaitzeko, bideratzeko eta lagun-

tzeko pertsona bat behar dutelako, eta hori edozein irakaslek egin dezake. Nik parte hartu nuen, ongi joan zen, beraiek ere ez dute kontrarikesan, eta nik joaten jarraitu dut.

5 Zenbat ikasle doaz?

Aurten 61, hiru klase. Baina urtearen arabera izaten da. Aurreko ikasturtean ez ziren 50era iristen eta aurten 60 pasa.

6 Nola laguntzen duzu momentu horretan?

Badago lan formal bat: antola-keta, autobusa, paperak, non aurkeztu, ordutegiak, mugikorrak nola egon behar diren esan, zer tresna eraman behar dituzten... Logistikarekin lotutako gauzak, eta ardura nik eraman behar dut. Beraiek nahiko argi dute dena, baina egoera emozional desberdinak daude. Bestetik, nire lana animatzea, bultzatzea



Patxi Satrustegi Ganboa Altsasuko BHIko orientatzailea.

eta abar da. Ez da lan espezializatu edo berezi bat. Han egon behar zara gauza ongi, lasaitasunez eta normaltasunez joan dadin. Egoera horretan edozein arazok dena hankaz gora jarri jar dezakeelako.

7 Nola joaten dira ikasleak?

Gure ikastetxean denetarik dago. Iruñetik bi egunetarako kanpora doan jendea ere bada, gaua bertan pasatzen dutenak.. Guk autobus bat antolatzen dugu. Aurten joaterakoan autobusa izanen dute, baina itzulerakoan lehenengo eta bigarren egunean bakarrik.

8 Eta emozionalki?

Lehenengo egunean beldurrak airean daude, dardar batean, modu desberdinetan: batzuk oso euforiko ateratzen dira, beste batzuk isilean bere gauzatan... Lehenengo eguna okerreña da. Dena berria da. Bigarren egunerako neurria hartu diote eta, tentsioaren barruan, beste patsada batean hasten dira. Tentsio handiko uneak dira. Batzuk asko dute jokoan.

9 Zure selektibitatea gogoan duzu?

Bai, horixe. Nola ez dut gogoratu behar! Nik uste denok gogoratzen dugula. Tentsio handikoa izan zen ere, jende pila bat denak batera, itogarria bezala zen. Baina ez dakit horrenbesteko presioa genuenik. Gainditzeko presioa

genuen, baina ez genuen notagatik hainbesteko presioa. Orain presioa notagatik da. Ikaragarri igo da gradu batzuetan nota, eta batzuk nahi dutena lortzeko oso zail dute.

10 Zer gomendio ematen diezu?

Lanak eginak eramatea; egun hauetan hori da garrantzitsuena. Esan nahi dut, ikasi duten hori ongi antolatu, organizatu, informazioa eskematizatu eta argi izan ikasgai bakoitza nondik heldu daitekeen. Orain ezin dute gehiegi sakondu; ikasitakoa non daukadan buruan eta hori nola kudeatu. Horretarako lasaitasun puntu bat behar duzu edo behintzat tentsio ez oso handia. Garrantzitsuena antolakuntza da.

11 Graduak aukeratzeko orduan zer joera daude?

Boladak egoten dira. Ez dakit, modak, merkatuak edo hedabideek horrela zabaltzen dutelako den, baina garaian garaiko izen handiko ikasketak egoten dira. Orain, adibidez, osasun zientziekin zerikusia duten guztiak indar handia dute. Duela 30 urte telekomunikazioa zen nota gehien eskatzen zutena; orain telekon oso nota baxuarekin sartzen zara eta osasun zientziekin lotutakoetan izugarritzko notak. Hoberena izango litzateke ordenatuago edo antolatuago egongo balitz. Sektoreen arteko konexioak.

**ZATOZ GUREKIN
festara**

HERRIKO FESTETARAKO BEHAR DITUZUN EUSKARRI GUZTIAK PRESTATUKO DIZKIZUGU
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo** 619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus